


Berrigara



Semea
mundialaren
atarian

Gaztelu

Zatoz **Clio** berria ezagutzera
Bergarako **Mecara**.




RENAULT



MECA
MAILERRA
Amillaga 5
BERGARA
943 76 40 68

Gonbidatuta zaude!



**HILE HONETAN ALDA ITZAZU ZURE
UKIPEN-LENTE BIGUNAK**

**BAUSCH
& LOMB**

14.000 PEZETAGATIK BAKARRIK*

Aprobetxa ezazu eskaintza!

ESKANTZA HONEK 98-5-31RA ARTEKO BALIOA DU

*Kontsultatu gradua

Pack Gaztea



- **6 hilabeterako erabili eta botatzeko ukipen-lenteak**
- **500ml.ko 3 pote *ReNu Soluzio Bakar***
- **Eta erloju zoragarri hau opari!**

ESKANTZA HONEK 98-6-30ERA ARTEKO BALIOA DU EDO AGORTU ARTEKOA



**P. MANSO
Optika**

Irizar 2
Telefona: 76 27 86

Euskal Herrian ere bai

Ainhoa Agirrezaldegi / Bertsolaria



Irlanda eta Euskal Herriko egoeren konparaketa ahoz aho dabil. Han ametsek amets izateari utzi diotela ikusiz, euskaldunon artean ere noiz-nahi soma daiteke jendea bake bidez hizketan. Gero eta gehiago dira negoziaketa baten beharra azpimarratzen dutenak. Baina nonbait urduritu egin du horrek Aznar, eta amenazua, gerra deklarazioa luzatu digu, non eta geure etxean. Bide poliziala baino ez du ikusten irtenbide bezala.

Ez du besterik ikusi nahi. Aznarrek badaki ongi konponbiderik ez dagoen bitartean, konfliktoak aurrera jarraituko duela. Eta Euskal Herriarentzat konponbidea ez da bertako herritarren ordezkaritza haundi bat espeteratzea. Hori bide zapaltzailea da, faxista. Euskal Herriarentzat bakebidea mahai baten inguruan dago, elkarrizketan, negoziaketan. Hori ez da bideragarria, ordea, mahaiaren alde bat pausorik eman gabe, eserita baldin badago. Luzaroan eskatu zaio ETari armak uzteko. Ahale-

ginak hor daude -gartzelako frentear uztea esaterako-, baina erantzunik ez. Hor dago alternatiba demokratikoa, mahaigaineratu den bake proposamen bakarra. Eta erantzunik ez.

Lehenago ere erakutsia du Aznarrek hitzetik ekintzetara dagoen aldea txikia izan daitekeela. Eta gu hasiak gara ondorioak pairatzen. Partidu politikoak aurka azaldu zaizkio Aznarri, HBrekin ere negoziatu behar dela esanez. Baina ahaztu al zaie hauei bake

proposamen bat zabaltzearen 23 pertsona daudela espeteratuta? Epaituak izan ziren garaian euskal alderdi politikoek ez zuten adierazpen askatasunik defenditu; nola edo hala PPreñ jarrera babestu zuten.

Oraingoan badirudi larritu egin direla. Burugabekeriatzat jo dituzte Aznarren esanak, baina presidenteak esan duena ez da berria euskal herritarrentzat. Mugi zaitzete, bada, gainontzeko alderdi politiko eta herritarrok, Aznar burugabekeriak bata bestearen atzetik, etengabe egiten hasi aurretik. Berandu izan baino lehen. Herri honen irtenbidea geronek bilatu eta aurkitu behar dugu; eman ditzagun geuk pausoak, arrotzek bizpahiru pausotan gu jan ez gaitzaten. Defenda ditzagun gure herria eta herritarrak, eta ez hauteskunde kanpaina bezperan soilik. Geuk geure negoziaketa aurrera eramaten ez badugu, luzaroan segi genezake oraingo egoeran, horretarako kanpotikako interesak ere gutxi ez dira-eta. B

"Burugabekeriatzat jo dituzte Aznarren esanak, baina presidenteak esan duena ez da berria euskal herritarrentzat. Mugi zaitzete, bada, gainontzeko alderdi politiko eta herritarrok"

barruan



J. R. Etxebarria

EHuko irakasle kanporatua

"Euskal Herriak eskubidea du bere irakaskuntza sistema propioa eraikitzeko"

8. orrialdean.



Agustin Aranzabal

Futbolari izandakoa

"Agustinek, semeak, Mundialean aukerak izan ditzake eta ondo erantzungo du"

17. orrialdean.



Marga Zulaika

Dendaria

"Dotore janztea gustatzen zait, traje beltza batez ere; buzo bat ez nuke inoiz jantziko"

29. orrialdean.

orain dela...

BERGARAN GERTATUA

1976. Maiatzaren 21ean, Udal-biblioteca inauguratu zuen Seminarioko bajuetan Justino Lopez abadeak. Ekitaldian "Bergagarko besarkada"ri buruzko hitzaldia eskaini zuen Iñaki Zumalde.

EUSKAL HERRIAN GERTATUA

1260. Maiatzaren 15ean, Espainiako errege Alfonso X.a Jakitunak Arrasateri Mont-Drakon izena jarri zion.
1890. Maiatzaren 12an, greba egin zuten Bilbo inguruko meategietan. Beren lan ordu eskaria: maiatzetik abuztura egunero 11 ordu; gainerako hiletan 10 edo 9.

MUNDUAN GERTATUA

1982. Maiatzaren 12an, Joan Paulo II.a Aita Santuaren kontrako atentatua egin zuen Juan Fernandez Khon-ek, ultra-eskumako apaiz espainiarrak, Fatiman (Portugal).

zozketak

BONO LOTO

Eguakitzeta 8
 3-11-12-29-38-45 (osag.46/er.5)
Astelehena 11
 6-15-16-23-37-47 (osag.22/er.3)
Martitzena 12
 10-16-30-33-40-48 (osag.39/er.1)
Eguaztena 13
 12-14-21-25-30-32 (osag.28/er.1)

PRIMITIVA

Zapatua 9
 5-17-27-30-35-47 (osag.20/er.4)
Domeka 10 Gordoa
 13-19-34-40-41-42 (osag.16/er.6)

ONCE


Eguakitzeta 8: 72.396 (K. seriea: 059)
Astelehena 11: 83.863
Martitzena 12: 67.928
Eguaztena 13: 26.236

BESTE BATZUK

Bedelkar, harakinak: 3.863





Eguraldia

Igeldoko meteorologi behatokia



Astebukaeran zero estaliak izango ditugu: eguakitz eta zapatuan hodeiak izango dira nagusi eta euri tantaren bat botako du. Domeka okerragoa izango dugu oraindik eta han-hemenka euria egingo du. Haizeak iparretik joko du.

Ilargiarenaldiak

-  Ilbete: maiatzak 11
-  Ilbehera: maiatzak 19
-  Ilberri: maiatzak 25
-  Ilgora: ekainak 2

Eguzkia

Domeka, maiatzak 17



Sortu: 05:59



Gorde: 20:28

Temperaturak eta euria Bergaran

Luis Mari Agirre

	max. °C	min. °C	euria l/m ²
Eguaztena 6	21	8	-
Eguena 7	28	4	-
Eguakitzeta 8	22	6	-
Zapatua 9	28	9	-
Domeka 10	25	15	-
Astelehena 11	22	10	3,2
Martitzena 12	21	10	-
Eguaztena 13	26	7	-

bertako berbak

Juan Martin Elexpuru

Adur

Adurra, lerdea.
 - Adur potzua zeukan izaran eindra.

Adurra darixola. Zerbaiti begira: neska, mutil, jaki..., miretsirik.
 - Biaje dana adurra darixola ein giñuan, azafatei begira.

Adurti, adurtixa. Adurtsua.
 - Gure umia, adurtixa galanta.



JOSU OKINA

hamaika ikusteko jaio ginen!

Odol unibertsala

Houstoneko Baylor Collegeko zientifikoek odol-transfusioak egiteko prozesu berria probatu dute emalea eta hartzailea odol-talde bateraezinekoak direnerako. Horretarako, globulu gorriak erauzi eta polietileno glikoletan batzen dituzte; material horrek oxigenoa garraiatzen uzten du baina odol-taldeak antzematen dituen antigorputzen aurrean hesi bezala jokatzen du.

Farmaziak

Eguakitzeta 15:

PUY. Barrenkalea 25. 943 76 16 87.

Zapatua 16:

GUALLAR. S. Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.
 GAUEZ: ESPAÑOL, Arrasate. 943 79 14 88

Domeka 17:

GUALLAR. S. Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.
 GAUEZ: CORCUERA, Arrasate. 943 79 22 28

Astelehena 18:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.
 GAUEZ: IRIZAR, Arrasate. 943 79 12 99

Martitzena 19:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.
 GAUEZ: AMEZUA, Arrasate. 943 79 09 74

Eguaztena 20:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.
 GAUEZ: ZABALA, Arrasate. 943 77 16 30

Eguena 21:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.
 GAUEZ: RUIZ, Arrasate. 943 79 14 09

Ogia

Domeka 17: Konde.

Telefonoak

OSASUNA / LARRIALDIK

SOS deiak	000
DYA	943 78 71 57
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdia	943 76 12 94
Anbulatorioa (txanda)	943 76 24 40
Anbulantzia	943 55 49 62
Udalizaingoa	943 77 91 06
Ertzaintza	943 76 53 40
Suhiltzaileak	943 78 28 00
Osasun Etxea	943 76 24 40
Arrasateko ospitalia	943 79 53 00
Asepeyo	943 76 13 48
Pakea	943 76 13 48
Angiozarko medikua	943 78 90 27
Antzuolako medikua	943 76 52 23

GARRIAOK

Euskotren	943 45 01 91
PESA	902 10 12 10
Taxiak	943 76 19 50
RENFE	943 28 35 99

UDALA

Udaletxea	943 77 91 00
Udal Artxiboa	943 77 91 32
Igerilekuak	943 76 20 51
Kultur Etxea	943 77 91 58
Liburutegia	943 77 91 62
Mizpirualde Egoitza	943 76 13 66

BESTELAKOAK

Epaitegia	943 76 14 92
Erregistroa	943 76 12 15
Jardun	943 76 35 61
Jubilatu Etxea	943 76 21 40
Postetxea	943 76 25 85

zorion agurrak



Maite Goñi
Maiatzaren 13an
16 urte. Zorionak!
Amama Pepi, Bego,
Josu, Usume.



Mikel Aguilu
Maiatzaren 310ean
urtebete. Zorionak
eta muxuak!
Etxekoak.



Izaskun Fernandez
Maiatzaren 8an
18 urte. Zorionak!
Gelako lagunak eta
famiiliakoak.



Juan Iturbe
Maiatzaren 11n
73 urte. Zorionak!
Famiiliakoak.



Maite Iñarra
Maiatzaren 10ean
15 urte. Zorionak!
LagunaK eta
etxeokak.



Joseba Larrañaga
Maiatzaren 6an
16 urte. Zorionak!
Lagunak eta
lehengusuak.



Karmele Uribesalgo
Maiatzaren 19an
2 urte. Zorionak!
Famiiliakoak.



Elena Fernandez de Jauregi
Maiatzaren 4an
urtebetetzea. Zorionak!
Iñaki, Olatz.



Jon Garitano
Maiatzaren 16an
10 urte. Zorionak!
Etxekoak.



Ekaitz Regoriago
Maiatzaren 14an
6 urte. Zorionak!
Idoia, Olaia eta
etxeokak.



Manuela
Maiatzaren 12an
urtebetetzea.
Zorionak! Etxekoak,
Nerea eta Izaskun.



Milagritos
Maiatzaren 6an
urtebetetzea.
Zorionak!
Famiiliakoak.



Iker Gorriti
Maiatzaren 18an
urtebete. Zorionak!
Izeba.



Iosu Gorriti
Maiatzaren 18an
urtebete. Zorionak!
Izeba.



Miguel Diaz
Maiatzaren 12an
urtebetetzea.
Zorionak!
Etxekoak.



Maria Angeles Vicente
Maiatzaren 12an
urtebetetzea. Zorionak!
Etxekoak.



Antxon Ugalde
Maiatzaren 21ean
9 urte. Zorionak!
Famiiliakoak.



Patxi Ugalde
Maiatzaren 6an
4 urte. Zorionak!
Famiiliakoak.



Iñaki Berroia
Maiatzaren 12an
5 urte. Zorionak!
Famiiliakoak eta
lagunak.



Veronica Urkia
Maiatzaren 2an
12 urte. Zorionak!
Famiiliakoak eta
lagunak.



Aitor Iruin
Maiatzaren 14an
7 urte. Zorionak!
Etxekoak.



Ane Muñoz
Maiatzaren 14an
12 urte. Zorionak!
Famiiliakoak.



Rosa Narbaiza
Maiatzaren 20an
urtebetetzea.
Zorionak!
Etxekoak.



Tio Josito
Apirilaren 27an
30 urte. Zorionak!
Josu eta Alatz.



Oskar Bauza
Maiatzaren 3an
18 urte. Zorionak!
Etxekoak, Nerea,
Izaskun.



Arantxa Azurmendi
Maiatzaren 9an
urtebetetzea. Zorionak!
Famiiliakoak.



Niko Serrano
Maiatzaren 17an
urtebetetzea.
Zorionak!
Famiiliakoak.



Dorleta Iturbe
Maiatzaren 13an
urtebetetzea.
Zorionak! Eneritz,
Julen , Aritz.



Maite Elorza
Maiatzaren 14an
4 urte. Zorionak!
Etxekoak.



Monse Murgiondo
Maiatzaren 17an
urtebetetzea.
Zorionak ama!
Etxekoak.



Esther Martin
Maiatzaren 14an
16 urte. Zorionak!
Lagunak.



Ion Pueyo
Maiatzaren 14an
9 urte. Zorionak!
Borja eta Josu
aniak.



Hodei Arregi
Maiatzaren 2an
9 urte. Zorionak!
Famiiliakoak.



Miel Mujika
Maiatzaren 8an
urtebetetzea.
Zorionak! Jaione
eta famiiliakoak.



Markel Arenaza
Maiatzaren 17an
8 urte. Zorionak!
Famiiliakoak.



Diego Valor
Maiatzaren 10ean
24 urte. Zorionak!
Famiiliakoak.



Izaskun Arrese
Maiatzaren 17an
14 urte. Zorionak!
Koadrilakoak.



Xabier Goikoetxea
Maiatzaren 17an
14. Zorionak! Koadri-
lako neska-mutilak.



Anita Basauri
Maiatzaren 17an
urtebetetzea.
Zorionak!
Etxekoak.



Aitor Ruiz, "Koko"
Maiatzaren 12an
23 urte. Zorionak!
Koadrila eta
nobixia.

ESKER ONA

Jose Maria Etxeberria Etxarri

Bergaran hil zen 1998ko maiatzaren 6an,
59 urte zituela.

*Hileta-elizkizunetara joan zinetenoi eta
zuen samin-agurra eman zenutenoi,
eskerrik asko famiiliakoen partez.*



hildakoak

BERGARA

Jose Maria Etxeberria Etxarri
Maiatzak 6, 59 urte.

Maxima Anduaga Letamendi
Maiatzak 12, 83 urte.

Margarita Sasieta Agirrebalategi
Maiatzak 13, 89 urte.

jaio t a k o a k

BERGARA

Eneko Kortabarria Barruso
Maiatzak 2

Leire Zabaleta Bengoa
Maiatzak 6

ANTZERKIA

► **Takolo, Pirritx eta Porrotx** pailazoen emanaldia bihar, zapatua, 12:00etan Arrasateko Amaia antzokian.

MUSIKA

► Jam aretoa. **Electrocuting Elvis, Los Nitros eta Extras** taldeak gaur, eguakitza, gauerditik aurrera; **UK Subs, Guerrilla Urbana eta Menten Enfermas** taldeak bihar, zapatua, 21:00etan; **Cradle of Filth** domekan 20:00etan.

► **Mikel Laboak** gaur, eguakitza, Oñatin eman behar zuen kontzertua bertan behera geratu da.

► **Hiru Truku** taldea gaur, eguakitza, 22:30etan Elorrión.

► **"Dana lanbrotute ikustot"** ikuskizunaren aurkezpena gaur 23:00etan Soraluzeko zine aretoan. Poesia, musika eta irudiak.

► **Kontakarion** musika taldea Oñatiko Santa Ana aretoan domekan, 19:30etan.

► **Mikel Telleria** kantautorea datorren eguenean, hilak 21, 22:00etan Soraluzeko Gaztelupe tabernan.

ERAKUSKETA

Museoko piezak

Noiz: astelehena, 17:30etatik 20:00etara
Non: Udaletxeko Pleno aretoan

Museoen Nazioarteko Eguna ospatzeko, astelehenean Seminarioko Zientzia Museoko piezak izango dira ikusgai Udaletxeko Pleno aretoan. Erret Mintegian bost sekziotan banatutako 2.829 ale badiara ere, astelehenean zoologia sekzioko zenbait pieza eta laborategiko aparailu batzuk ezagutzeko aukera izango da bakarrik. Piezarik deigarrienak, dudarik gabe, zoologikoak izango dira, horien artean diseatutako tigre bat eta leopardo bat. Biak ere nahiko egoera txarrean zeuden eta parasitoak hil ondoren, berrizte lanak behar izan dituzte. Hauekin batera, besteak beste, armadiloa, lepazuria edota txorizezena jarriko dira ikusgai. Aparailuen artean, berriz, XIX. mendeko ispilu parabolikoak, Serrin-en erregulatzailea (itsasuntzien edota lantegien argiztapenerako erabiltzen zena) eta beste hainbat izango dira.

1992tik 96ra bitartean museoko piezak berreskuratzeko eta txukuntzeko lanak egin ziren eta astelehenean Pleno aretora hurbilduko diren ikusleek azken urteotan egindako lana gertutik ezagutzeko aukera izango dute. Horretarako, museoko tekni-

koak egiten ari diren lana azaltzeko panel informatiboak jarriko dira eta pieza bakoitzaren gainean egiten den berrizte prozesua eta ikerkuntza prozesua ere jakitera emango dira asteleheneko erakusketan. Bien bitartean, museoak aurrera darrai bere proiektuarekin. Museoaren kokapena zehaztu bitartean, bertan ikusgai izango den bilduma (700 bat pieza) prestatzen jarraitzen dute museo langileek. B



Museoko pieza bat: mozoloa (Athene noctua). ARTIBARRA

ERAKUSKETAK

► **Javier Garcian**en margoak Nahikarin.

► **Manu Muniategiandi-koetxearen** margo erakusketa Donostiako Galeria

DVn (San Martin, 5), ekainaren 7ra arte.

► Zezenzaleak taldeak antolatutako **Lehen Abdon Juaristi Pintura Lehiaketara** aurkeztutako lanak eta Juaristi beraren margoak Kultur Etxean.

IKASTAROKAK

► **Glotodidaktika** ikastaroa Deba Garaiko AEKK antolatuta. EGA izatea beharrezkoa da. Plaza mugatuak. Argibideak eta izen-ematea (maiatzaren

TXALAPARTA IKASTAROA *ekaina eta uztailean*

Kartzela Zaharrean
Eguenetan 19:00etatik 21:00etara.
Hasiera eguna: ekainaren 4a.
Irakaslea: Andoni Goiti.

Prezioa: bazkideek 1.500 PTA,
gainontzekoek 2.000. Plaza mugatuak.
Izena ematea: Kartzela Zaharrean.
943 76 36 61 / 76 08 19. Epea: maiatzaren
28ra artekoa.



29ra arte) 76 05 18 telefono
nora deituz.

► **Gipuzkoako udal eus-
kaltegien Zeraineko bar-
netegian** egonaldia uztaile-
ren 1etik 15era. Matrikula
epea maiatzaren 22ra arte
zabalik. Argibideak
Bergarako Udal
Euskaltegian. 76 44 53.

LEHIAKETAK

► **Kirol Argazkien VIII.
Lehiaketa**, Euskadin bizi
den edozein afizionaturen-
tzat. Lanek ekainaren 16ra
arte jasoko dira Udal Kirol
Zerbitzuan. 77 91 67.

DEIAK

► Maiatzaren 24an egingo
den **Haurren Euskal Jaian**
haurrak bazkaltzeko jaso
nahi dituztenek izena eman
dezakete Aranzadi
Ikastolan (76 26 76) edo 76
40 70 (Ibon) zenbakian.

► **Aguifes** Gipuzkoako
Senide eta Gaiso Psikikoien
Elkarteak eta Udaleko
Ongizate Sailak antolatuta,
Emilio A. Martin psikologo-
aren hitzaldia astelehenean
19:00etan Kultur Etxean.

► **Komite Internaziona-
listak** antolatuta, Juanjo
Celorio EHuko irakasleak
"Komunikabideak" hitzal-
dia emango du eguaztene-
an 19:30etan Kultur Etxean.
Eguenean, hilak 21,

Chiapaseko egoera aztergai
ordu eta toki berean.

► **XVI. Arrasate-Oñati
korrika lasterketa** dome-
kan, 16 urtetik gorakoen-
tzat. Irteera goizeko 11etan
Arrasateko Portaloitik. Izen-
ematea domekan bertan
Arrasateko Portaloian,
10:30ak arte.

► **Hitzaldia**. Aranzadi
Ikastolak antolatuta, **Mikel
Usabiaga** Majisteritza
Eskolako irakasleak "Aita,
ama, ikus dezaket telebista"
izenburuko hitzaldia eman-
go du Plazako Psikomotri-
zitate aretoan 18:30etan.,
astelehenean (euskaraz) eta
eguaztenean (gazteleraz).

► **Pello Añorgaren** hel-
duentzako ipuin-kontaldia.
Oñatiko Santa Ana aretoan
martitzenean 19:00etan.

► **Euskadiko XXI. Bikote
Dantza Txapelketa**,
Bergaran maiatzaren 31n,
14 urtetik beherakoei
zuzenduta. Izen-ematea
hilaren 25era arte izango da
zabalik. 77 91 58.

KINTADAK

► **1958an** jaiotakoen afaria
ekainaren 6an, Antxonin.
Izen-ematea Intxorta taber-
nan edo Antxonin bertan.

► **1953an** jaiotakoen afaria
uztailaren 4an, Antxonin.
Izen-ematea (2.000 pezeta-
ko aurrerapena) Antxonin.

Z I N E A

KARTELDEGIA

BERGARA. Novedades
El mañana nunca muere
Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:30.
Domeka: 17:00.

Esfera
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:15.
Astelehena, ikuslearen eguna: 19:30.

Giro al infierno
Eguena, zine-kluba: 20:00.
ARRASATE. Alai zinema
Scream 2
Eguakitza: 22:00.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:00, 21:30.
Martitzena: 19:00, 21:00.

ARRASATE. Amaia
Lolita
Eguena, zine-kluba: 21:30.

EIBAR. Unzaga
Torrente, el brazo tonto de la ley
Eguakitza: 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena, ikuslearen eguna: 19:30,
22:15.

EIBAR. Rialto
Idolos, mentiras y rock & roll
Eguakitza: 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, ikuslearen eguna: 19:30,
22:15.

OÑATI. Santana
Mejor... imposible
Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 19:30, 22:30.
Domeka: 22:30.
Astelehena: 19:30.

ELORRIO. Arriola
Legítima defensa
Zapatua: 22:30.
Domeka: 20:00
Astelehena: 20:00.
Fotografiando hadas
Eguena, zine-kluba: 20:15.

EL MAÑANA NUNCA MUERE

Zuzendaria: Roger
Spottiswoode.
Aktoreak: Pierce Brosnan,
Jonathan Pryce eta Michelle Yeoh.
Ingeles zerbitzu sekretuko
beherak berriz ere pantaila
handian. Honako honetan
Bond ajenteak armekin trafiki-
katzen duen talde bati aurre
egin beharko dio eta, norma-
la denez, mila oztopo gaindi-
tu beharko ditu bidean. Hori
bai, aurkakoak menderatzeko
teknika aparailu aurreratue-
nak eta emakume ederren
laguntza izango du...

ESFERA

Zuzendaria: Barry Levinson.
Aktoreak: Dustin Hoffman,
Sharon Stone eta Samuel L.
Jackson.
Michael Crichton idazle ospe-
tsuaren (Parque jurasico)
nobelaren oinarritutako filmea.
Estatu Batuetako gobernuak
Norman Goodman doktorea
eta beste hainbat espezialista
deituko ditu itsasoaren hon-
doan dagoen utzi estralurtar
bat ikertzeko.

GIRO AL INFIERNO

Zuzendaria: Oliver Stone.
Aktoreak: Sean Penn, Jennifer
Lopez eta Nick Nolte.
Bobby Cooper-i bizitza pri-
meran doakio eta Las Vegas
bidean da, gangster batzue-
kin dituen zorrak kitatzeko.
Kotxea hondatu ondoren,
gauzak erabat okertuko zaiz-
kio Arizonako Superior
herrian. Bidaiari batek sekula
bisitatu behar ez duen tokia...

BERRIGARAK ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketan erantzukizunik.

ARGI PLASTIC


PVC, aluminio termikoa, egurra,
poliuretanoa... Leihoak,
ateak, manparak...

Eka ezazu
aurrekontua konpromezu barik



Erakusketa: Masterreka 14 behea
BERGARA

Tf: 76 55 02 Faxa: 943 77 11 30



PINTURAS BERGARA S.L.

• INDUSTRIARAKO PINTURAK
• GARBIKETAK

• APAINKETARAKO PINTURAK
• ERROTULOAK

Aranerreka 32 behea. BERGARA. Telefonoa: 943 76 10 65. Faxa: 943 76 11 40.

Sei urte dira Jose Ramon Etxebarria eta beste bost irakasle Euskal Herriko Unibertsitateetik kaleratu zituztenetik. Orain, euskal irakaskuntza sistema propioa aldarrikatzeko kanpainari hasiera eman diote eta eguenean Jose Ramon Etxebarria hizlari izan genuen Bergarako UNE-Den.

G. Zein da zuen aldarrikapena?


E. Benetan euskal unibertsitate bat sortzea da aldarrikapen sakona. Era berean, gure arazoari irtenbide justua ematea; batetik, gu berriro sartzea unibertsitate-ira kontratu duin finko batekin eta ez orain arteko kontrato administratibo inposatuarekin, diskriminazio ideologiko bategatik kaleratu gaituzte eta; eta bestetik, bide bat irekitzea irakasleria propioa sortzeko, funtzionarioa izango ez dena. Unibertsitateak eskubidea du hori sortzeko eta hori da gure aldarrikapena duela 10 urtetik hona.

G. Zertan datza diskriminazio ideologiko hori?

E. Gu lehendik ginen unibertsitateko irakasleak (ni 1971n hasi nintzen) eta konturatu ginen Espainiak modelo funtzionariala inposatu nahi zuela unibertsitatean, funtzionario izatera behartu nahi gintuzten. Hori oso kaltegarria da euskal unibertsitatearen sorrerarako, euskal adarraren garpenerako, eta uste dugu bide propio bat ireki behar dela Espainiako funtzionario izan gabe unibertsitateko irakasle izan ahal izateko. Unibertsitateak berak ere onartu zuen irakasleria propioa sortu behar zuela. Hala eta guztiz ere, funtzionario izan nahi ez bagenuen, urtean behin edo bi

JOSE RAMON ETXEBARRIA
EHUko irakasle kanporatua

“Euskal Herriak eskubidea du bere irakaskuntza sistema propioa eraikitzeko”



Jose Ramon Etxebarriak hitzaldia eman zuen joan zen eguenean Bergaran.

urtetik behin 2. mailako kontratu administratibo bat sinatzera behartzen gintuzten. Azkenean, insumiso egin eta eurek inposatutako ordezkotzat kontratu hori ez onartzeagatik kaleratu egin gintuzten; ez gara inoiz funtzionario egingo. Horregatik bota gintuzten, ez onartzeagatik jende gehienarentzat pagotxa bat dena.

“Kontua ez da Espainiako eredu Euskal Herrian inposatzea. Irakaskuntzan autodeterminazio eskubidea planteatzen dugu”

G. Zergatik ez duzue funtzionario izan nahi?

E. Uste dugulako funtzionarioa Estatuaren aparatuan integratzeko metodo bat dela eta irakasle guztiak sumisiora eramaten dituen azken finean, sumisio aktu bat da sistema jerarkiko baten aurrean. Gure ustez, bateraezina da pertsona libre izatea eta funtzionarioa izatea. Gaur egun unibertsitateko irakasle izateko, karguaren jabetza hartzeko (ez da kontratu bat, baizik eta izendapen bat, Estatuak bere zerbitzari izendatzen zaitu) Espainiako konstituzioa zin egin behar duzu. Beraz, bere legeak aplikatu behar dituzu. Gu, euskaldun garen aldetik, ez gaude prest gu hiltzera kondenatzen gaituzten legeak betetzeko. Unibertsitateetik inposizio bat onartu ez dugulako bota gaituzte, sumisio aktu hori egin nahi izan genuelako eta egingo ez dugulako. Horregatik eskatzen dugu unibertsitateko irakasle izateko eskubidea umilazio horretatik pasatu gabe. Legea bera da injustoa; euskaldunak euskaldun unibertsitatea ezin eduki izatera kondenatzen ditu eta gu horren aurka errebelatu gara, disidente batzuk gara.

G. Disidentzia horretan zein da zuen zeregina?

E. Gure aldarrikapena egitea, Euskal Herriak eskubidea duela bere irakaskuntza sistema propioa eraikitzeko, antolatze eta kudeatzeko alegia. Kontua ez da Espainiako eredu bat inposatzea Euskal Herrian eta hori euskarara itzultzea. Guk geure eredu euskalduna sortu behar dugu eta geuk antolatu behar dugu unibertsitatea. Azken batean, arazo politiko sakon bat planteatzen ari gara, autodeterminazio eskubidea irakaskuntzan hain zuzen.

70 aparkaleku publiko egingo dituzte Ibargaraiko etxeen azpian

Garaje pribatuen ondoan kokatuko dira aparkalekuak

Ibargarai kalean Mauricio Arregi eta Beitia eraikuntza enpresak egiten ari diren etxeen azpian aparkaleku publikoak egingo dira.

Victoriano Gallastegi alkateak joan zen eguakitzean aurreratu zuenez, 70 autorentzako tokia izango da. Aparkaleku publikoen zerbitzua nola kudeatuko den oraindik zehazteke badago ere, prezio merkeak ezartzeko asmoa dagoela esan zuen alkateak. Arrasate eta Eibarreko kasuak aipatu zituen eta aparkalekuetara sartzeko makina bat jartzeko aukera aztertzen ari direla esan zuen.

Udalak Mauricio Arregi eta Beitia enpresen ordezkariekin etxe azpiko aparkalekuentzako azalera haunditzea eta hasierako proiektua aldatzea adostu zuela esan zuen alkateak. Mauricio Arregik eta Beitiak aparkaleku publikoak eraikiko dituzte, beste aparkaleku pribatuen ondoan, eta kostu-prezioan salduko dizkie Udalari. Ibargarain etxeak egitearren Bergarako Udalari dagokion kopuruarekin ordainduko dira aparkalekuak.

Seminarioko patioaren eta Belanbide kalearen artean dagoen lursailean egiten ari diren etxeen azpian kokatuko dira aparkaleku publikoak. Sarrera, Seminario aldetik egingo da, aparkaleku pribatuen sarreratik.



Ibargarain egiten ari diren etxe berrien azpian jarriko dituzte aparkaleku publikoak.

Alkateak aurreratu zuenez, urte eta erdi barru prest egingo dira aparkalekuak. "Gaur egun Bergaran 200 aparkaleku publiko falta dira eta 70 hauekin arazoa zertxobait konponduko da" esan zuen alkateak.

Bestalde, herriaren erdian aparkatzeko OTA zerbitzua jartzeko aukera aztertzen ari da Udala. Aparkalekuen arazoari irtenbidea topatzeko, herritarren elkartasuna beharrezkoa dela adierazi du sarritan alkateak: "garajeak dituzten herritar askok kotxeak kalean aparkatzen dituzte. Badakit es-

kubide osoa dutela, baina solidarioagoak izan beharko ginateke guztiok".

Iralako hitzarmena sinatu zen

Bestalde, eguakitzean sinatu zen Iralako hitzarmen berria. Irizar eta Quemadak, Espectaculos Bergara S.A.-ren izenean, eta Victoriano Gallastegi alkateak, Bergarako Udalaren izenean, sinatu zuten hitzarmena. Promotoreek etxeak lehenbait lehen egiteko asmoa zutela aurreratu zuten hitzarmenaren sinatze ekitaldian.

Lehenago Irala zinearen lerrokadura berbera izango du eraikuntza berriak eta 18 garaje, merkataritza jarduerarako guneak eta 14 etxebizitzak egingo dira. Promotoreek obrak urte eta erdi barru bukatuta egingo direla esan zuten eta logela bateko, biko eta hiruko etxebizitzak egingo dituztela aurreratu zuten.

Sinatze ekitaldiaren aurretik, eguerdiko 12:30etan, Udalbatzak baietza eman zion hitzarmenari; HBko zinegotziak ez ziren Plenoan egon, baina hitzarmenaren kontra azaldu dira. B

Udalak ez du erabaki zerbitzua nola kudeatuko den, baina baliteke makina bat jartzea eta prezio merkeak ezartzea



Era askotako jarduerak egin ahal izango dituzte udan neska-mutiko gaztetxoek.

Astebeteko oporraldia antolatu du Jardunek 12-16 urtekoentzat Lizarran izango da uztailaren 13tik 19ra bitartean

Jarduneko Gazte taldeak 12-16 urte dituztenentzat astebeteko oporraldia antolatu du uztailerako. Uztailaren 13tik 19ra bitartean oporrak Lizarran pasatzeko aukera eskainiko zaie neska-mutil gazteei. "Orain arte Gartzela Zaharrean 11-14 urtekoekin lan egin dugu eta 16 urtera arteko ere luzatu nahi diegu eskaintza" esan digu Nekane Gabilondok, Jarduneko dinamizatzaileak. DBHko bi zikloeta-

ko neska-mutilei zuzendutako jarduerak antolatu nahi dituzte aurrerantzean eta, udako oporraldi hauekin, lehen harremanak egin eta datorren urtean Gartzela Zaharrean hainbat ekintza antolatzea da helburua.

Udako oporraldi honetan, Lizarrako aterpetxe batean pasatuko dute astea. Piragua, zaldiak, golf txikia, piztina, puenting-a, bizikleta, eskalada eta diskotekarekin gozatzeko aukera izan-

go dute. Jarduera hauetarako begirale espezializatuak izango dira eta, horretaz gain, Bergararik Jarduneko 4 begirale joango dira.

22.500 pezeta ordaindu beharko da (autobusa, egonaldia eta janaria barne) eta izena emateko epea maiatzaren 20an amaituko da. Plaza mugatuak direnez, interesa duenak lehenbailehen eman dezala izena Gartzela Zaharrean edota 76 36 61 telefonora deituz. B

Kanpoko piztinak maiatzaren 18an zabalduko dira eguzkia hartzeko

Kanpoko igerilekuan eguzkia hartzeko aukera izango da datorren astelehenean aurrera. Goizeko 10etatik arratsaldeko 18:30ak arte izango dira zabalik astelehenean domekara arte. Bestalde, Udako Kirol Zerbitzuko arduradunen asmoa ekainaren 15ean kanpoko piztinak bainurako zabaltzea da. Aurten, gainera, ordu bate lehenago zabalduko dira: goizeko 9etatik gaueko 9ak arte. B

Zazpi talde txoznetarako

Jaietan Bideberri txoznak jartzeko zazpi talde egin dute eskaria. Zortzi txozna jartzeko tokia dagoenez, hasiera batean zazpirek edukiko dute txozna jartzeko eskubidea. Hauek dira: Aranzadi Ikastolako BBBko bigarren mailakoak, Amnistiaren Aldeko Batzordea, Ipintza Institutua, Jarrai, EHE, AEK eta Miguel Altunako elektrizitate alorrekoak. B

Kizkur

Ilcapaindegia
Solariuma

Bolu 51 Tf. 943 76 50 32

IRURAK PINTURAK O.E.

ERA GUZTIETAKO LANAK PAPER PINTATUAK
MOKETA ETA SINTASOLA HAREA ZORROTADA
IZTUKU ESPONJATUA IZTUKU FALTSUA

AITZITURRI 6 • 286 POSTA KUTXA • 20570 BERGARA
TELEFONOA eta FAXA: 943 76 09 32

Lazkano

KIROL OINETAKOAK ETA OSAGARRIAK

Barrenkalea 15-17. BERGARA.
Tf. 943 76 25 03

Ezker Sindikalak egoitza berria inauguratu zuen Artekalean

CCOOfik irten eta ESK barruan lan egingo dute

Sindikatuaren egoitza berria inauguratu zuen Ezker Sindikalak martitzenean Artekalea 1ean. Inaugurazio ekitaldian hainbat afiliatu eta ELA eta LABeko ordezkariak bildu ziren.

nik ez zuela eta sindikatutik joateko erabakia hartu zutela esan zuen. Etorkizunera begira, ESK barruan lan egingo dutela eta ELA eta LABekin elkarlana bultzatuko dutela adierazi zuen. "Helburua Euskadin ezkerreko sindikatu indartsua sortzea da; horretarako, ESK eta LABekin batera ezkerreko sindikatu haundi bat sortzeko bideak urratu behar-ko genituzke" esan zuen.

Gaur egun Ezker Sindikalak 100 afiliatu inguru izango dituela esan zuen eta Bergarako lantegietan lehen CCOOekoak ziren delegatuen %80 inguru Ezker Sindikalera pasatu direla adierazi zuen.

Ezker Sindikalaren bulego berria Artekale 1ean kokatuko da eta goiz eta arratsalde zabalik izango da bulegoa edozein kontsulta egin nahi dutenentzat. B



Martitzenean inauguratu zuten Ezker Sindikalekoek egoitza berria.

Moiua eta Sanchez Toca kale berriak

Eguakitzean bi kale berriren izenak onartu zituen Udalbatzak. San Lorentzon eraikitzen ari diren etxe unifamiliarrak bukatu eta ingurua urbanizatzen denean bi kale geratuko dira: alde batek San Lorentzotik gora doan bidetik ezkerre geratuko den kaleak, Moiua torrearen azpian, Moiua kalea izena hartuko du; aldapan gora eskumarantz eta goiko estaziorantz joango den kaleari, oster, Melchor Sanchez Toca izena jarriko zaio.

Melchor Sanchez Toca (Bergara, 1804), nazioarte mailan zirujanorik onenetarikoa izan zen eta Espainiako Isabel II.a erreginaren kamara medikua izan zen. Medizina Errege Akademiako kidea izan zen 43 urtez eta zazpi aldiz hautatua erakundearen lehendakari izateko. Donostiak 1902. urtetik dauka kale bat bere izenarekin. Udal museologoak beste lau bergarar ospetsuren izenak ere proposatu zituen. B

Etxaniz Askatu plataformak hainbat ekintza egingo ditu

Jose Mari Etxaniz Askatu plataformako 20 bat lagun bildu ziren joan zen astelehenean Pol-Polen, aurrerantzean egin beharreko lanei buruz berba egiteko. Plataformako kideek Etxanizen zeldaren erreplika erakutsi zuten orain dela pare bat hilabete San Martin plazan eta asteburu honetan

Soraluzera eroango dute. Ondoren, Iruñera eta Guggenheimera eroateko asmoa ere badute. Bestalde, 1.500 herritarren sinadurak batu dituzte orain arte eta Pazkuetan manifestazio bat antolatuko dute. Plataformako kideek beste bilera bat antolatu dute astelehenean iluntzeko 8etan. B

Lanbide Hastapen ikastaroak gazte langabetuentzat Arrasaten

Deba Garaiko Mankomunitateak Lanbide Hastapen ikastaroak antolatu ditu datorren urterako. Sei ikastaro eskainiko dira: sukaldaritza, bulego zerbitzua, zurgintza, igeltserotza, mekanika eta elektrizitatea. Ikastaro guztiak aurtengo irailetik datorren urteko ekainera arte izango dira (1.000 ordu).

Ikastaroak langabezia dau den 16 urtetik 20 urtera artekoek zuzenduta daude eta eskariak egiteko orduan, Deba Garaiko herriren batean errolatuta egotea eta INEMeko txartela edukitzea eskatuko da. Aurrematrikula Bergarako udaletxean egin daiteke maiatzaren 22a baino lehen. B

Berrigara

323 zenbakia.
1998ko maiatzaren 15a.

Errotalde Jauregia. 20570 Bergara
Telefona: 943 76 03 97.
Faxa: 943 76 29 77
E-mail: berrigar@sendanet.es
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

Zuzendaria: Eneko Azkarate.
Erredakzioa: Edu Mendibil, Aitziber Azkondo. **Maketazioa:** Iñaki Iturbe.
Publizitatea: Kristina Romero.
Harpidetza: Gorka Elortza. **Testuen zuzenketak:** Estepan Plazaola, Alex Labaien. **Erredakzio kontseilua:** Miguel Angel Elkoroberezibar, Alex Labaien, Gorka Elortza. **Komikiak:** Bitor Rodriguez, Gorka Ortega & Jon Alvarez, Alex Ugalde, Unai Azkarate.
Kolaboratzaileak: Juan Martin Elexpuru, Josu Okina, Luis Mari Agirre, Imanol Sorondo.
Banaketa: Txantxangorri taldea.
Inprimategia: Gertu Koop. Elk. (Zubiolla, Oñati).

Azaleko argazkia: Berrigara.

Tirada: 5.100 ale.

Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntza:



Bergarako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Eusko Jaurlaritzako Kultura saila

gutunak

Ezer adierazi nahi baduzu, ekarri edo bidali iezaguzu zure gutuna. Postaz edo eskuan: Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia z/g 20570 Bergara. Faxez: 943 76 29 77. Posta elektronikoz: berrigar@sendanet.es (Gutunak identifikatu egin behar dira).

PASIAZKEKO TOKI EZ OSO ATSEGINA

Bada Bergaran toki bat pasiazteko uste bezain atsegina ez dena. Matxiategi kaleaz ari naiz, bertan zuhaitz-adarrak oso baxu daude eta ez dago altuegia izan beharrik handik pasatzerakoan makurtu egin behar izateko. Ez da kontu berria, aspaldiko urteetan berdin gertatzen da.

Zeini ote dagokio hau konpontzea? Inori badagokio, zer ote da? Ez ote da Matxiategitik pasatu?

R.E.L. (15.367.963)

IRALA ZINEA

Irala zinea zegoen tokian etxeak egin behar dituztela irakurri dut eta poztu egin naiz. Izan ere, zinea itxi zutenetik egoera negargarrian egon da ingurua. Urteetan itxita egon ondoren, arratoien etxe bihurtuz, orain dela pare bat urte edo bota zuten eta berehala edifizio berria egingo zutela komentatu zen. Hitzarmen bat ere sinatu omen zen, baina hilabeteak joan, hilabeteak etorri, han ez zen ezer mugitzen. Asko eta asko, ingurua zegoenetan geratuko zela pentsatzen hasi ginen. Baina, azkenean, arazoa konpondu da hitzarmen berri batekin.

Esan dudan bezala, pozten naiz herriaren erdian dagoen lursail batean eraiki egingo delako, baina kontu batek kezakutzen nau: Iralako jabeei ez zaie gehiegi permititu? Beste herritarrekin berdin jokutzen du Udalak? Zergak eta multak kobratzeko orduan zorrotz jo-

katzen du Udalak, baina beste kontu batzuetan ez hainbeste. Hor daukagu Iralaren kontua, baina ez da bakarra. Herriaren erdian dagoen lursail batean, Bidekurutzetan, etxe zaharra aspaldi bota zuten berriak egiteko. Urteak pasatu dira bota zutenetik, baina ez dute etxe berriak eraiki. Zenbat itxoin beharko dugu? Jabeak ezin zaio erantzukizunik eskatu? Herritar guztiak daukagu herria txukun zainatzeko erantzukizuna, baina batzuei, itxura denez, bost axola die horrek.

Iñaki Larrañaga

tira biraka: gorka ortega & jon alvarez



■ atrebentzia ezpada

■ bai, esan!

Correosetako zerbitzua erabiltzeko ohiturarik badaukazu?



Dolores Obeso

Egia esan, nik gutxi erabiltzen dut eta uste dut gero eta gutxiago erabiltzen dela. Gabonetan erabiltzen dut gehien. Nire ustez, zerbitzu ona eskaintzen du.



Jose Luis Carnicero

Bai, noizbehinka bai. Hilean behin edo bitan joan beharra daukat. Kartak atzerapen pitin batez heltzen dira askotan, baina orokorrean zerbitzu ona ematen da.



Mari Jose Larrion

Ia ez dut erabiltzen, Gabonetan zerbait. Ikasle garaian kanpoan nintzen eta karta dexente bidaltzen nituen. Kartak lehenago heltzea ondo egongo litzateke.

Gertaeraren bat salatu edo txalotu nahi baduzu, 943 76 03 97ra deitu eta sail honetan jasoko dugu zuk esana. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.

Jokin Altunak deitu zigun astelehenean BERRIGARARA. Jokin joan zen zapatuan Oñatira joan omen zen antzerki lan bat ikustera. Lagun batzuek gomendatutako Leo Bassiren "Instintos ocultos" antzezlan ikusi zuen Oñatiko Santa Ana aretoan eta benetan ikuskizun entretenigarria eta diferentea iruditu zitzaion. Jokinek dioenez, inguruko hainbat herritan ere (Arrasate, Tolosa...) izan da Leo Bassi bere ikuskizunarekin baina zoritxarrez ez dugu Bergaran ikusteko aukerarik izan. Betiko taldeez gain, Jokinek faltan botatzen du kanpoko beste talde batzuk ekartzeta eta horiek kontutan hartzea ere eskatzen du.



Jon Ander Mujika

Ez, oso gutxi. Bakarrik gauzak jasotzeko, baina bidaltzeko ia sekula. Lanean faxa erabiltzen dut. Presa baldin badaukazu, Correos baino aukera hobek daude.



Maribel Sierra

Asko ez, baina erabiltzen dut, bai. Katalogoz eskutatako gauzak jasotzeko adibidez. Eskaintzen den zerbitzua ona dela uste dut.



Iñaki Alberdi

Nik ez dut karta asko bidaltzen. Gabonetan erabiltzen dut gehiago baina gutxi. Uste dut zerbitzu ona eskaintzen dela.

■ ikuspuntua: **jose angel mikeo**

Kontsumoa zainduz

Euroa dela eta ez dela denok erdi "erotuta" gabiltzan honetan, munduan sortzen ari den merkaturik haundieneko partaide izango garela eta pozik egoteko moduan gaudela esan digute hainbat esatari ofizial, erdi-ofizial eta politikok. Denok egindako ahalegina izan ei da, gainera, horretara eraman gaituena. Eskatutako baldintzak betetzeko jo eta ke aritu omen gara bat eginik eta, ondorioz, denoi eskertzekoa hainbeste sakrifikatu izana (lana egingo luketeen langabetuei ere esker mila langabe egotearren).

Eta hori guztia munduko merkatal potentzia haundiena izan nahi duen Europako herrialdeetan gertatzen den bitartean, mundua bere bali-



bideen zatirik haundienaz baliatzen diren gutxiengoa eta baliabide horietatik ia ezer erabiltzen ez duten gehiengoaren artean dago banatuta.

Sarritan Hirugarren Munduko herrialdeetan ekoiztu eta hemen kontsumitzen ditugun produktuak hango langileek sufrizten duten zapalketa eta lan baldintza eskasen fruitu dira. Soldata negargarriak, nekazal produktuen salneurri miserableak, konpainia transnationaleekiko menpekotasuna...

Horren aurrean badago zereginik eta buelta emateko treseneria ere gure esku dago: Bidezko

merkataritza eta Erantzukizuneko kontsumoa. Duela hogeita hamar urte sortu zen mugimendu hau Europan. Bere helburua berdintasunean oinarritutako harreman ekonomikoak bultzatzea da, menpekotasunean dauden herrialdeei irtenbide duina eskaintzea, produzitzen dutena erosit.

Bidezko merkataritzak gaur egun Europan 3.000 denda, 45.000 salmenta leku, 100 erakunde, 50.000 bolondres... ditu eta Hirugarren Munduko 800 produktu baino gehiago erosten ditu.

Bere zilborrari begira dagoen Europa honetan itxaropenik badagoela uste dut, merkatua bererabili dezakegula egoerari buelta emateko: kontsumismora bultzatu nahi gaituztenean erantzukizuneko kontsumitu.

Laster, gure inguruan ere horretarako aukera izango dugu. **B**

■ asteko menua

Barazki menestra

OSAGAIAK

- Azelgak
- Espinakak
- Alkatxofak
- Brusela azak
- Azalorea
- Idarrak
- Lekak
- Azenarioak
- Kipula

APAINTZEKO

- Urdaiazpikoa
- Zainzuriak
- Arrautza gogorra
- Txanpinoiak
- Berakatz buru erdi
- Pikilo piperrak (tiratan)



KONTXITA AGIRRE
Etxagiko sukaldaria

PRESTAKETA

- Azelga penkak, espinakak, alkatxofak (limoi pixka batekin), azalorea (larregi egosi barik), brusela azak, lekak txikituta, azenarioak txikituta, idarrak eta kipula erdi oso txikituta, gatz pixka batekin egosten ipini; ondo xukatu ondoren, salda gorde.
- Zainzuriak egosi eta salda gorde.
- Pikilo piparrekin tirak egin eta berakatzarekin sueztitu.
- Txanpinoiak ondo txikitutako kipularekin eta Starlux pixkatekin potxatu.
- Barazki guztiak frijitzeko gertatu: penkak karratu txikituan moztu, espinakekin bolatxoak egin, alkatxofei orri gogorrak kendu eta azalorea erdi-bitu eta zati berdintsuetan moztu.
- Barazki guztiak irin eta arrautzatan pasatu eta olio askotan frijitu, gehiegi gorritzen laga barik.
- Buztinezko lapikoan, olio jarri ondo txikitutako kipula erdi eta urdaiazpiko zatiekin. Berotzen ipini ondoren, lekak, azenarioak eta idarrak gehitu eta salda pixkatekin sueztitu.
- Lapikoa sutatik kendu eta albardatutako barazki ak lapikoan sartzen joan.
- Txanpinoiak, urdaiazpiko xerrak, zainzuriak, arrautza gogor zati batzuk eta pikilo piper tirak lapikoan banatu.
- Lapikoa estali eta egosten eduki denbora batez; pegatu ez dadin, ondo zaindu eta noizean behin leka eta azenarioen salda gehitzen joan.

■ adituen esanetan

Otitisa

JULIAN IGARTUA, *otorrinolaringologoa*

Otitis mota asko daude baina gehien ematen dena kanpoko otitisa da. Gehienbat 16-30 urte bitarteko gazteen artean ematen da eta gizonezkoen artean kasu gehiago izaten dira.

Faktore eragileen artean, hezetasuna, ura edo belarriak garbitzeko erabiltzen diren makilatxo horien erabilera aipatu daitezke. Zenbait jende erabiltzen dituen tapoiak kentzean ere otitisa sortzeko arriskua dago. Otitis kasu gehienak pizinetan harrapatzen dira (% 44), hondartzan, berriz, % 28, % 20 ezkoagatik eta % 8 beste arrazoi batzuenatik, protesien erabilera, dutxa edota ekzemak tartean.

Faktore eragileak zeintzuk diren kontutan izanik, otitis kasu gehienak udan ematen dira. Sintomei dagokienez, belarrian min handia izaten da eta itxita egotearen sentsazioa ere agertzen da. Supurazioa oso eskasa izaten da. Kanpoko otitis kasuak ez dira larriak izaten eta tratamendu errez bat jarraituta berehala sendatzen da. Normalean mindutako belarrietan tantak botatzen dira eta antibiotikoak hartzeko aukera ere badago. Otitis mota hau izateko jorera dutenei, goian aipatutako faktoreak saihestea gomendatzen zaie. Hezetasuna ebitatu behar da eta, ahal dela, bainurako tapoiak erabili. B


■ bergarako gordailutik

ASKO HILTZEN ZIREN UMETAN

Imanol Sorondo

Gaur egunean oso ume gutxi hiltzen da, istripuren baten ondorioz ez bada, behintzat.

Lehen, aldiz, asko izaten ziren hildakoak jaioberritan, umetan eta lehendabiziko urteetan. Artxibategira hurbilduz gero, harrituta gelditzen zara umetan hildakoen zerrendekin.



Orain berriro ipini zen BERGARAKO orri honetan San Pedroko parrokiak 1.600 biztanle izango zituela XVIII. mendeko bukaeran. 1787. urtean parrokiako lanen eta pastoral ekintzen kontua ematen da eta hileta elizkizunei dagokionean, helduenak 24 bat izaten direla urterero adierazten da, eta umeenak 16.

Orain ehun urte ere ume asko hiltzen zen; garai horretako Santamainako parrokiako hileta elizkizunen kopurua jarraian:

	Helduenak	Umeenak
1875	41	23
1876	62	23
1877	30	20
1878	28	17
1879	39	23

Hurrengo urteetan berdin samar jarraitu zuen. Geroztik, mende honetan egin da harritzeko moduko aurrerapena gai honetan. B



Guggenheimera bisitaldia

HHI-EPA ikastetxeek Bilbora irteera egin zuten joan zen astean. Bilbon **Guggenheim museo**a bisitatu ondoren, Getxon bazkaldu zuten eta arratsaldean Castro Urdiales aldera jo zuten. Eguraldiak lagundu ez bazuen ere, guztiek (55 lagun inguru) primeran igaro zuten eguna. Maiatzaren 28an Burgosera joateko irteera prestatzen hasi dira dagoeneko. Ikasturtearen azken txanpan, ikasleek asko eskertzen dituzte klase orduetan antolatutako ekitaldi hauek.

40 urte ezkontuta

Jesus Manso eta Manuela Blazquez bergararrek, ezkondu zireneko 40. urtemuga ospatuko dute domekan. Dagoeneko 40 urte bete dira **1957ko maiatzaren 17an San Pedron** elkarri baietza eman ziotenetik. Domekan, elkarrekin igarotako urte hauek ospatzeko, lehenbizi meza izango dute eta ondoren bazkaria familiartekoekin. Tartean euren 4 seme-alabak eta hauek eman dizkieten 6 bilobak izango dira. Zorionak!!




Ezkontza

Beatriz Zarraoa elorriotarra eta **Joseba Arbulu** uberarra ezkondu ziren zapatuan. Ezkontza elizkizuna **Uberan** izan zuten eta Orfeoiko talde batek lagundu zuen meza. Josebak eta Beatrizek elkarri baietza eman ondoren, senide eta lagunekin bazkaria egin zuten Villa de Elorrio hotelean. Ezkontza bidaiari egitera Perura abiatu dira biak. Zorionak!



Fitxaketa berria

Bergara Kirol Elkarteko taldea mailaz igo dela eta, datorren urterako taldea osatzen hasi dira zuzendaritzakoak eta dagoeneko hasiak dira jokalariak fitxatzen. Argazkian ikusi dezakezuen moduan **Butragueño** da datorren urterako "lotu" dutenetako bat. **Txopo, Franki, Oxan eta Maroto Mexikon** izan berri dira eta azken urteetan Atletico Celaya taldean aritu den Emilio Butragueño fitxatu dute. Izar berria eta Bergarako ordezkariak poz-pozik agertu dira kontratua hitzartu ondoren. Eta hau egia bazan...



LASAGABASTER

AUKERARIK ONENA



DOCKERS

pants by
Levi Strauss & Co.

Agustin Aranzabal "Gaztelu":

"Semeak aukerak izan ditzake Mundialean"

Aranzabalen jarraitzaile gaztetxoek ez dute ezagutuko "Gaztelu"k, Agustinen aitak, Realaren kamiseta janzten zuen garaia. "Gaztelu"k ez zuen olinpiada bat edo mundial bat jokatzetik izan baina Atotxako zalegoaren errekonozimendua irabazi zuen bere joku keimentsuagatik. Aurtengo Liga amaitzear dagoela, Realaren gorabeherak eta semearen sa-soia aztertu dugu berarekin.

Lesioengatik denboraldi zaila izan arren, Mundialaren saria izan du semeak...

E. Lesioekin suerte txarra izan du, bai. Muskularrak oso lesio problematikoak izaten dira eta lan asko egin behar izan du Agustinek ondo errekupeartzeko. Egia esan, lesionatu aurretik susmoa neukan Clementek Mundialerako deituko zuela. Gero gauzak okertu egin ziren; berak ahal duen guztia egin du joateko eta lesiotik ondo errekupeartzeko. Azken partiduetan ondo ibili da baina nik uste dut oraindik ez dagoela bere forma onenean. Mundialera oso forma onean helduko dela uste dut, izan ere, doan martxan gero eta hobeto dago, lesioa ahaztuta dauka eta hemendik bi hilabetera sasoi ezinhobean egongo da.

G. Mundialean jokatzeko aukerarik baduela uste duzu?

E. Nik baietz uste dut. Lehen hiru partiduak astebetean izango dira eta zaur oso partidu gogorak izango direla. Aukeraren bat izan dezake eta ondo erantzungo duela uste dut.

G. Aurten Realarekin erdialdean ere aritu da hainbat partidutan. Zuk zein postutan jarriko zenuke?

E. Nik uste dut jokalaria batek postu bat baino gehiagotan jokatzeko balio behar duela. Agustinek defentsan zein erdian jokatu ahal izateko ezaugarriak dauzka. Zelai erdian, erantzunkizun gutxiago daukanez, aurreruntz erreza-
go egiten du, gehiago gustatzen zaio defenditzea baino. Defentsan, berriz, beste mentalidade bat izan behar da eta



aurrera ezin duzu hain errez egin.

G. Gustatzen zaizu Clementeren taldeak?

E. Egon behar direnak daudela uste dut. Frantziarako klasifikazioan aritutako jokalariek dira gehienak eta ekipoa ondo ezagutzen du Clementek; badaki jokalariek ehuneko ehunean erantzungo diotela, oso psikologo ona da Clemente, jokalariei laguntzen dakiena.

G. Mundialerako zein da zure faboritoa?

E. Esperientzia handiko taldeak daude hor. Nahiz eta Mundial aurretik ondo ibili ez, atzenean Mundialean Brasil, Alemania eta Italia hor goian egongo dira. Espainia lehenengo lauren artean sartzea oso arrakasta handia izango litzateke. Baina faktore asko daude; partidu txar bat eginez gero, kanpoan geratu zaitezke. Hala ere, Espainiak azken urteotako ekiporik onena dauka eta selekzioari gol bat sartzea oso gaitza da.

"Lesiotik ondo errekuperatu ondoren, semea ondo ibili da azken partiduetan. Hala ere, oraindik ez dago bere forma onenean. Mundialera sasoi ezin hobean iritsiko da"

G. Joango zara ikustera?

E. Lehenengo astean, behintzat, joango naiz eta ea hurrengo faserako sailkatzen diren...

G. Semearen partiduetan asko sufritzen duzu?

E. Nerbioso samar egoten naiz, batez ere ikusten ez nagoenean. Futbol zelaian baldin banago, trankil egoten naiz; baina irratitik entzutea ezinezkoa egiten zait. Normalean ez dut entzuten partidua akabatu arte.

G. Gomendio asko ematen diozu semeari?

E. Batzuk bai. Jokoa batzuetan izaten dituen hutsak zuzentzeko esaten diot, zelaira irtetean denean trankil egoteko eta dakiena egiteko.

G. Mundiala baino lehen, Ligaren amaiera dator. Zela ikusi duzu Realak aurtan?

E. Oso denboraldi ona egin du; Liga hasi aurretik ekipoa UEFA-n sartuko zela esan izan baligute, jende askok sinatuko zuen orduan. Azken partidua geratzen da eta Realak betiko moduan joango da, irabaztera. Azken jardunaldian sorpresak egon daitezke; Athletic-i asko kostako zaio Zaragozari irabaztea eta Realak ez dut uste Mallorcan galduko duenik.

G. Kraussek denboraldia behar bezala baloratu ez izana salatu du...

E. Egia da; gertatu da Anoetako azken partiduen ondoren jendeak ez zekiela oraindik UEFArako sailkatuta zegoen ala ez eta etxeko azken partidua irabazi ez izanak ere jendea hoztu egin du piskat. Realaren zalegoa, nik uste dut, nahiko hotza eta exigentea dela. Horren arrazoietakoa bat Anoetan ikusleak jokariengandik gertu ez ego-

tea izan daiteke. Futbola ikusteko ondo dago Anoeta, baina jokalarientzat futbol zelaia hotza da.

G. Zer iruditzen zaizu Krauss?

E. Oso entrenatzaile zuzena da; jokari guztiak berdina dira berarentzat, ez dago preferentziarik eta jolasen ipintzen ditu bere iritziz forma onenean daudenak. Eta azkarra da; partiduetan egiten dituen aldaketekin beti asmatzen du. Entrenatzaile ona dela iruditzen zait.

G. Sei urte pasatu eta gero Realak berriro Europar...

E. Jokari asko daude Europar jokatzeko zer den ez dakitenak eta esperientzia hori izatea oso gararrantzitsua da. Taldeari esperientzia handia eman dio horrek, oraindik ere konfiantza pitin bat falta zaio eta. Atzerritarrekin parekatzean zein mailataraino heldu daitezkeen konturatu dira.

G. Oraingo taldean zerbait hobetu beharra ikusten duzu?

E. Postu bakoitza betetzeko bi jokari daude eta ikusi da edozeinek egin dezakeela ondo. Hala ere atzetik ustekabean errematatzerantz heltzen den jokari bat botatzen dut faltan, epoka batean Bakerok eta orain Luis Enriquek egiten duena. Baina ekipoa ondo konpentatuta ikusten dut.

G. Uste duzu semea Ligako txapeladun izango dela inoiz Realarekin?

E. Oso gaitza da hori esatea. Jende askok Liga irabaztea ezinezkoa dela uste du, baina begira aurtan zein gutxi falta izan den hor goian egoteko. Liga oso aldrebesa izan da; Bartzelonak hasiera txarra izan zuen eta begira zelako aldea atera duen amaieran. Realari ezin zaio gehiago eskatu, baina nori daki etorkizunean zer gertatuko den. Pentsatu ezazu, Bilbo ere hor dago, etxeko jendearekin bigarren...

G. Atzerritarrei buruz, zein irizki daukazu?

E. Gehiegi daudela. Nik uste dut etxean badaudela kanpoko jokalariei modukoak. Kanteran badago erreleboa. Oraintxe ikusi da gazteak behar gogor datozela eta etxekoak lotu behar dira. Azken urteotan ikusten ari gara kanpokoak gure jokalariei atzetik debiltzala. Ezin zaio Etxeberria moduko jokari bati alde egiten laga. Gazteak zer nolakoa zetorren erakutsi zuen gauza horrek ondo lotu behar diren bestela alperrik gabiltza.



"Gaztelu" Agustin bere semearekin, Realak 1976ko abenduaren 5ean eskaini zion omenaldian. Ikurriñaren derbyan Realak 5 eta 0 irabazi zion Athletic-i Atotxan. "Gaztelu"k bi gol sartu zituen egun hartan.

Bi partidu selekzioarekin

Agustin Aranzabal "Gaztelu" k ez zuen Amundial bat jokatzetik izan. Kubalak, bere garaiko selekzionatzaileak, bi aldiz deitu zuen. Espainiako selekzioarekin 1969an debutatu zuen, 23 urterekin, Finlandiaren aurka La Linean jokatu zuten adiskidetasun partiduan. Hainbat hilabete leSIONATUTA eman ondoren, hurrengo denboraldian Chipreren aurka Granadan jokatzeko konbokatuta zuten. Realean, batez ere, erdialdean aritu arren, Kubalak atzean, eskuinean, jarri zuen "Gaztelu". Hala ere, ez zuen selekzioarekin gehiago jokatu eta Kubalaren taldea ere ez zen 1974ko Alemaniako munduko txapelketarako sailkatu. Hurrengo mundiala Argentinan jokatu zen eta, ordurako, 32 urte betetzear zegoen "Gaztelu". Bere hitzetan, "behin internazionala izanda oso polita da mundial bat jokatzeko, baina nik ez nuen zorte hori izan.

Nire epokan Espainia ez zen klasifikatu eta 1978an nahiko edadetu nintzen, lesioekin kastigatuta ere bai... Baina ez daukat penarik; ni beti izan naiz gauzak datozen moduan hartzekoa eta halaxe tokatu zen".

Realean, berriz, garairik onenak eza-gutu zituen "Gaztelu" k. 1967ko urtarrilaren 29an debutatu zuen Realarekin, Algirirasen kontrako Kopa partidu batean, Andoni Elizondo entrenatzailearen eskutik. Denboraldi hartan lehen mailarako igoera lortu zuen Realak. 1973-74 denboraldian, berriz, lehen aldiz European jokatzeko sailkatu zen. "Gaztelu" k 307 partidutan jantzi zuen kamiseta txuri-urdiña eta 32 gol sartu zituen 15 denboraldira. 1980-81 denboraldian, 34 urte zeuzkala, erretiratu zen, Realak bere lehen liga irabazi ondoren. Despedida ezin hobea afizio osoaren estima irabazi zuen jokalariaentzat. **B**



G. Harrobiko jokalaria ez dira behar beste baloratzen?

E. Ba, nik ezetz uste dut. Beti pentsatzen dugu kanpokoak hobea dela eta gehiago pagatzen zaio hari. Etxeko jokalaria ez da ondo baloratzen. Gero beste kontu bat dago; kanpokoak bi-hiru urterako dator eta dirua irabaztera. Etxekoak, berriz, badakizu, dirua irabazi bakarrik ez, daukan dena emango duela taldearengatik eta atzeritarrekin zantalza dago. Behar-beharrezkoa bada, etxekoa erdi lesionatuta ere zelairatuko da; kanpokoekin duda daukat.

G. Zein iritzi daukazu Imazen egoerari buruz?

E. Ez dakit bere falta igarriko den ala, ez baina Realean egindako jokalaria da, oso ondradua eta Realerako jo-

kalaria, ez beste inorako. Berak ikusiko du zer komeni zaion, baina niretzat Realean gelditu beharko litzateke.

G. Bitartekariak gero eta garrantzi gehiago daukate gaur...

E. Nik ez ditut gaizki ikusten, baina normala iruditzen zait klub bateko presidentek beste iritzi bat izatea. Hemen bat keitzten da faenaren bat egiten diotenean; orain, berak kanpoko jokalaria bat behar badu askotan bitartekariak berba egin behar du. Ondo datorrene-

an, ondo, eta gaizki datorrenean, gaizki. Hori ez da horrela. Semea Miguel Santosekin dabil, baina azkenengo kasuan ez zen iritsi harekin egotera. Eskaintza ona iruditu zitzaigun Realarena eta aurrera egin genuen.

G. Badirudi Realean egingo duela karrera osoa...

E. Bere aldetik Realean jokatu du beti. Orain, klubak saldu nahi balu aztertzekoa izango litzateke, baina bere asmoa Realean akabatzea da. **B**

"Realean etxeko jokalaria ez da ondo baloratzen. Beti pentsatzen dugu kanpokoak hobea dela eta gehiago pagatzen zaio. Lehenbizi etxekoak ondo lotu behar dira"

KAZOLATXOAK, PINTXOAK, BOKADILLOAK ETA AFARIAK DIRA GURE BEREZITASUNAK.

PISZINETAKO TABERNA

ASTEBURUETAN BAZKARIAK ETA AFARIAK!

BERGARA TF. 76 53 55



Labegaraietako futbito txapelketa

partiduak

PROMOZIOA

Domekan barruan

17:30: Ortzí-Artusamak
Arb.: Antolaketa Batzordea

PLAY-OFFAK

Domekan barruan

18:30: A Ze Flaxa Etxagi-Bar Canalejas

Arb.: Antolaketa Batzordea

19:30: Pagomendi-Mongatxurak

Arb.: Antolaketa Batzordea

TALDE FEDERATUA

Zapatuan barruan

20:00: Bergarako Lagunak-Bilkoin Legorreta

NESKEN IV. FUTBITO TXAPELKETA

Zapatuan barruan

17:45: Zutaz Pentsatzen-Azkenak

Arb.: Antolaketa Batzordea

18:45: Gu Geu-Potzu Ta Zapaburuak

Arb.: Antolaketa Batzordea

argi!

10 minutuko prorroga

Play-offetan, final erdieten eta finlean partiduak berdinketarekin amaituz gero, hamar minutuko prorroga jokatu da: bost minutuko bi zati; prorroga jokatu ondoren, partidua berdinketarekin amaituz gero, bosna penal-ti jaurtiko dituzte taldeek.

Iragarritako partidu guztiak jokatu dira

Nesken futbito txapelketan iragarrita dauden partidu guztiak jokatu dira aurrerantzean eta ez da bat bera ere bertan behera lagako.

jokoz kanpo



Iker Etxeberria
MONGATXURAK

- G. Zein postutan sailkatu zarete?
E. Ligan bigarren geratu gara.
G. Eta kopan?
E. Finalera heldu gara.
G. Nolako maila dago txapelketan?
E. Azkenengo fasean, ona.
G. Arbitraiak zer iruditzen zaizu?
E. No comment.
G. Txapelketako talderik onena?
E. Mongatxurak.
G. Zerbait bota duzu faltan?
E. Antolaketa aldetik, gauzak ondo egin dira. Zerbait eskatzeotan, taldeetako norbaitek arbitratu beharrean, arbitroak ipiniko nituzke.
G. Taldean zer hobetuko zenuke?
E. Ezer ez.
G. Zure taldeko gauzarik onena?
E. Giroa eta sortzen den saltsa.
G. Eta txarrena?
E. Batzuetan gure artean hasarretzen gara.
G. Zein postutan jokutzen duzu?
E. Aurrealdean.
G. Golik sartu duzu?
E. Bai.
G. Gehiago sartzeko asmotan?
E. Ez.
G. Mundiala nork irabaziko du?
E. Brasilek.
G. Ligako jokalaririk onena?
E. Rivaldo.
G. Real Europa ikusiko dugu?
E. Noski.

gora eta behera



Bildurbarek Opel/Lam

Lehen mailarik eutsi egin dio, promozioan Guadalest taldeari 10-2 irabazi ondoren. Partiduan gol bat baino gehiago kontrako taldekoen laguntzaz etorri arren, Bildurbarek taldekoek lehen mailan jarraitzea merezi dutela erakutsi du. Promoziorako datorren partidua domekan izango da Ortzí eta Artusamak taldeen artean.



Errotagain

Play-offetako lehen txandan kanporatuta gelditu den taldeetako bat Errotagain izan da. Azken urteetako talderik indartsuena, aurten ez da behar bezala aritu. Halere, esan behar da, Bar Canalejas taldeak laga duela kanpoan eta hauen ez dira hankamotzak. Errotagaineko hainbat jokalaririk, Lagunak talde federatua aritu dira eta, behar bada, horretatik ez da hain fin ibili txapelketan.

emaitzak

PLAY-OFFAK

Artusamak-Pagomendi	4-3
Bar Canalejas-Errotagain	7-5
A Ze Flaxa Etxagi-Manitou	5-2
Mongatxurak-Shaktale	5-3

PROMOZIOA

Bildurbarek Opel/Lam-Guadalest	10-2
--------------------------------	------

NESKEN IV. FUTBITO TXAPELKETA

Nifis-The Road Island	5-3
Potzu Ta Zapaburuak-Azkenak	20-1
Zutaz Pentsatzen-Blue Star	3-0
Gu Geu-Nahikari	3-0

Aldoka Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA



KORTA-ZAR Txokolategia

Pintxo eta ogibitartekoen
espezialitatea

OSTIRALETAN GOIZEKO 9ETATIK ZABALIK

Barrenkalea 16 ☎ 943 76 20 62

TOKI-ONA Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak / Txitxizozak
Kazolatxoak / Txabierroak

Matxiategi 1 Tf. 943 76 39 53


ESKOLAKIROIA

IKUSI ETA IKASI

SASKIBALOIA

Jokoa: saskibalo librea 2

- Joko eremua: Saskibalo pista.
- 6-10 jokalaridun bi talde.
- Materiala: Balo bat.
- Azalpen praktikoa: Talde bakoitza, baloiaz, aurkakoa taldearen saskiko taula ikutzen saiatuko da.
- Berezitasunak:
 - Ezin dira lau urrats baino gehiago eman baloiari bote eragin gabe.
 - Baloia duen jokalaria beste taldeko jokalaria batek ikutzen badu, berehala gelditu eta baloia pasatu edo taulara jaurti beharko du.
 - Baloia duen jokariari ezin zaio baloia eskutik kendu.
 - Baloiak aurkakoaren taula jotzen duen bakoitzean, bi puntu lortuko dira.
 - Puntu gehien lortzen duen taldeak irabaziko du.



TXINDARTAK

Rebeca Fernandez Badminton finalean txapeldun

Joan zen zapatuan, Badmintoneko infantil mailako neskek Oñatiko taldea kanporatu zuten eta Ipintza DBH ikastetxeko Rebeca Fernandez txapeldun izan zen bakarkako finalean. Bihar, zapatua, Gipuzkoako txapelketa jokatuko dute Ipintza DBHko ek. Bestalde, asteburuan Eskola arteko II. Olinpiada hasiko da eskubaloian, saskibaloian eta pilotan.

Joan zen zapatuan, eskola kirolean ari diren maila ezberdinetako mutikoez, kirol egokitueta aritzeko aukera izan zuten. Saskibaloia gurgil-aulkietan, boleibola, goal balla eta boccia hain zuzen.



5. mailakoak

Andoni Zubia, Arkaitz Perez, Asier Iparragirre, Jon Arteaga, Andoni Nafarrate, Ander Usaola, Asier Egaña, Gorka Gonzalez, Igor Uribealzo, Aitzol Gomez de Segura, Unai Aldanondo, Xabi Linazisoro, Mikel Larrañaga, Beñat Arregi, Jon Beñitez eta Naroa Bernardok esan digutenez, saskibaloia gurgil aulkietan izan da gehien atsegin izan duten kirola. Nekeza ez dela adierazi arren, indar handia behar dela diote. Telebistan ere kirol mota hauek jarraitzea atsegin dute, kirol hauek egiten dituzten profesionalen giharrak ikustea harrizkoa omen ei da eta.



3. mailakoak

Ander Garitano, Eneko Laria, Mikel Domingez, Paulo Bikuña, Gorka Artola, Julen Inurrieta, Josu Santos, Gorka Sanchez, Nerea Madariaga dira argazkian azaltzen diren hirugarren mailako neska-mutilak. Eskola Kirolean hainbat kirol egin dituzte eta kirol hauetan aritzeko lehen aukera izan zutenean, oso pozik azaldu ziren. Ezberdinak, politik eta, era berean, interesgarriak iruditu zaizkie. Beraien artean, arrakasta handiena izan duena, saskibaloia gurgil-aulkietan izan da. kirol ezberdinak ezagutzeko aukera gehiago egon behar litzatekeela esan digute.

KARTELDEGIA

FUTBOLA

Infantilak/Mutilak

Zapatuan, Ipintzan

11:00: Ipintza-San Biator

12:15: Aranzadi-Almen

Zapatuan, Atxabalpen, Arrasate (Autobus geltokian, 08:45)

09:30: SF Xabier-M Lagundia

Infantilak/Neskak

Zapatuan, Ipintzan

10:00: Aranzadi-SF Xabier

10:00: M Lagundia-Haurtzaro

Alebinak/Neskak

Zapatuan, Ipintzan

09:00: Aranzadi13-Txantxi 6A

SASKIBALOIA

Infantilak/Neskak

Zapatuan, M Lagundia Ikastolan

10:30: Aranzadi-San Biator

HOCKEY PATINETAN

Alebinak eta Benjaminak

Zapatuan, Aranzadi Ikastolan

09:30: 4. maila

10:30: 3. maila

11:30: 5. maila

12:30: 6. maila

ESKOLARTEKO II OLINPIADA

• I Jardunaldia

Mutilak

Zapatuan, M Lagundia Ikastolan

Aranzadi A-Ipintza DBH

10:20: Saskibaloia

10:40: Eskubaloia

11:00: Pilota

Aranzadi A-Aranzadi B

11:20: Saskibaloia

11:40: Eskubaloia

12:00: Pilota

Neskak

Zapatuan, M Lagundia Ikastolan

M Lagundia-Aranzadi D

10:40: Saskibaloia

11:00: Eskubaloia

12:20: Pilota

Futbola



Joan zen aste bukaeran, zazpi partidu jokatu ziren Bergaran eta inork ez zuen galdu. Zorionak talde guztiei!. Nietoren mutilek, aurrezku eta guzti izan zuen omenaldia eskaini zioten Pitiri. Jokalariak, loreak, plaka eta taldearen argazkia jaso zituen.

Bestalde, neskek, hiruna berdindu zuten eta lehen eta bigarren mailako jubentilek launa gol sartu zizkioten Orioko eta Telleri taldeei. Hirugarren eta lehen postuan sailkatuta daude, hiru partiduren faltan. Lehen mailako kadeteak sei golekin amaitu zuten partidua eta bigarrenekoek, zazpirekin. Gol faltan ez gintuzten utzi, ez kadeteek. Azkenik, infantilek bost gol sartu zizkioten Lagun Onak taldeari eta 4. postuan azaltzen dira.

Eskubaloia



Iraundi Bergara eskubaloi taldeak, Mutrikuko Jauja taldearen aurkako partidu osoan zehar aurretik ibili ondoren, 23-25 irabazi zuen. Une honetan, bi partiduren faltan daude eta hirugarren doaz sailkapenean. Lehen postua eskuratzea zaila izan arren, bigarren gelditzeko aukerak badituzte.

Kadete mailako mutilek, bi partidu jokatu behar izan zituzten asteburuan; zapatuan eta domekan. Zapatuakoa irabazi egin zuten Zumaiaren eta domekakoa, berriz, galdu, Arrasaten. Jubentile mailako mutil eta nesken taldeek ez dute zorte handirik izan. Azken hauek Arrasateren aurka galdu zuten. Azken lau partiduak galdu dituzte eta taularen behealdean jarraitzen dute.

Saskibaloia



Bergarako saskibaloi taldeak dagoeneko heldu dira azken txanpara. BKEko talde nagusiak joan zen astean amaitu zuten liga eta gainontzekoek, kadeteek izan ezik, astebukera honetan amaituko dute. Kadeteek maiatzaren 23an izango dute azken partidua Aloña Mendi taldearen kontra hain zuzen ere.

Pasa den astebukaeran izandako partiduetan ez dute zorte handirik izan. Jubentilek bederatzita puntugatik galdu zuten. Partidu osoan zehar parekatuta joan arren, azken zatian Arrasatekoek erantzun hobea eman zuten. Neskek ere ezin izan zioten Iraurgi taldeari irabazi, hauek ere parekatuta joan ziren, baina azkenean zorteak Iraurgiren alde egin zuten.

KARTELDEGIA

FUTBOLA

Bergara-Santo Tomas Lizeoa

Bigarren mailako kadeteak.

Domeka. 10:00. Ipintza.

Bergara-Gure Txokoa

Neskek.

Domeka. 11:30. Ipintza

ESKUBALOIA

Bergara- Leizaran

Seniorrak

Zapatua. 16:30. Polikiroldegia.

PILOTA

HERRI ARTEKO TXAPELKETA

Bergara-Oñate

Kadete, jubentile eta seniorrak

Eguakitza. 22:00. Pilotalekua.

JAVI MARTINEZ CARRASCOSA / Futbito jokalaria

"Oso giro ona dago jokalarien artean"

Duela urtebete sortu zen Lagunak federazioko futbito taldean dago eta une honetan atzelari postuan jokatzeko du. Bestalde, Manitou taldeko jokalaria ere bada.

G. Zenbat denbora Lagunak-en?

E. Joan zen urtean proiektua aurkeztu eta aurten hasi gara federatuen mailan jokatzeko.

G. Nork erabaki zuen Lagunak taldea sortzea?

E. Ideia Pedro Ricok izan zuen.

G. Nork entrenatzen zaituzte?

E. Astean behin entrenatzen gara Xabier Albiuarekin.

G. Zein talderen kontra jokatzeko duzue normalean?

E. Donostialdean aritzen gara gehienetan.

G. Nola joan da txapelketa?

E. Lehenengo urtea izateko ondo. Laugarren amaitu dugu.

G. Zer alde dago futbito eta futbolaren artean?

E. Futbitoak, toki guztietatik jokatzeko aukera ematen dizu.

G. Zein da talderik latzena?

E. Ataun.

G. Nolako giroa dago Lagunak taldean?

E. Oso ona.

G. Datorren urtean jokalaria berriak ekartzeko asmorik?

E. Bi jokalaria berri sartu dira. Hori guztia, entrenatzailearen esku dagoela uste dut.

G. Labegarrietako txapelketan parte hartzen duzu?

E. Bai, Manitou taldean jokatzeko. Eta denboraldi bikaina egin dugu gainera.

G. Bi taldeetan jarduteko asti nahikoa baduzu?

E. Normalean, Labegarrietako partiduak federatuen aukeraketaren ondoren erabakitzen dira. Arazo nagusia, oso nekatuta amaitzen dugula da. Une honetan, hiru par-


tidu izaten ditut astean zehar. Bat federatuekin eta beste bi Manitouekin.

G. Lagunak taldeko jokalaria bat.

E. Ibon Agirre.

G. Ligako talde bat?

E. Athletic. Gaur Champions Leaguerako sailekuko gara gainera.





"Piti" k plaka jaso zuen zapatuan BKEko Zaitegi presidentearen eskutik.

JUAN ANTONIO MIGURA

Denboraldi bikainari agur

"Piti" eta Gorka Zelaiak taldea utziko dute

Joan zen zapatuan Bergarak Ilintxaren aurka jokaturako partidua ikutu berezia izan zuen. Ligako azken partidua irabazteaz gain, "Piti"ri omenaldia eskaini zitzaion Agorrosinen.

Partiduaren atarian plaka bat, taldearen argazkia eta masajistak emandako lora sorta jaso zituen "Piti"k eta hori guztia borobiltzeko, Arkaitz Arana eta Gorka Ze-

laiak aureskua dantzatu zuten bere omenez. Omenaldia aprobetxatuz, Gorka Zelaiak oñatiarrari ere azken agurra eman zion zuzendaritzak.

Zapatuan ligako azken partidua jokatu zen arren, mahoneroek erregional mailako txapelkun titulua eskuratzeko, Baskoniaren aurka arituko dira Ordizian. Baskoniak 69 puntu lortu

ditu bere multzoan eta Bergarak, berriz, 72 puntu.

Bestalde, zuzendaritza nork hartuko duen airean dago oraindik. Inor agertuko ez balitz, aurreko zuzendaritza batzordeak hartuko luke Zaitegiren lekua. Martitzenean, zuzendaritza jokalarien gurasoekin bildu zen etorkizunari buruz hitz egiteko, baina bileran ez zen ezer argitu. B

Agirre bikain Arantzazun

Sumofic taldekoa laugarren sailkatu zen

Ander Agirre bergararra denboraldi bikaina egiten ari da Sumofic taldean. Joan zen zapatuan Aloña Mendi Kirol Elkarteak antolatutako Arantzazuko XXIV. Igoeran laugarren postua lortu zuen, Jacinto Ceballos irabazlearengandik sei segundura. Zapatuan ondo aritu bazen, domekan, Sumofic taldekoek Mutrikuko Atxukale Saria korritu zuten

eta Ander Agirrek, bailarako denbora hoberena egin zuen, hirugarren postuan sailkatuz. Peru Sagarna taldekideak, berriz, seigarren postuan lortu zuen.

Lehen urtea da Anderrrentzat jubenil mailan eta, dagoeneko, sari ugari lortu ditu. Hain zuzen ere, joan zen martxoan, Antzuolako Uzarragako Igoera irabazi zuen. B



Ander Agirre txirridularia.

Herri arteko pilota txapelketa

Herrien Arteko Pilota Txapelketan bergarrek Oñatin jokatu zuten joan zen astean eta itzulera, gaur, eguakitzan, 22:00etan jokatu da Bergaran. Kadete mailan jokatzeko duten Murua eta Herranek 18-12 galdu zuten, jubeniletako Muguruza eta Redondok 22-11 irabazi eta, azkenik, Samaniego eta Gutierrezek ere 22-18 irabazi zuten. B

Martin Bergara Hiriko finalean

Martitzenean, Bergara Hiria IV. Pilota Txapelketako final erdiak jokatu ziren promesa mailan eta Martin eta Baezek 22-14 irabazi zieten Ubera eta Urberoagari. Finala, datorren eguakitzean jokatu da, arratsaldeko 7:30etan. B

Gipuzkoako gimnasia txapelketa

Labegaraieta Kiroldegia, gimnasia erritmikoko Gipuzkoako Txapelketaren eszenatoki bihurtuko da domekan. Txapelketa, goizeko hamarretan hasiko da eta Bergararik, Aranzadi Ikastola ordezkatzuz, Ane Miren Fernandez, Aintzane Narvaez, Azahara Gonzalez eta Jaione Igartua arituko dira junior mailan. B

1. ETXEBIZITZAK

Saldu

Pisu salgai Donostian.
76 31 79.

Pisua salgai San
Pedron. 76 52 72.

Barrenkalean
apartamentua salgai.
76 56 41/76 04 69.

Pisu salgai Maduran.
76 41 07.

Pisu amueblatua salgai
Antzuolan. 76 60 41.

Pisua salgai Zabalotegi
dorrea. 76 33 93.

Aranerrea. 76 51 54.

San Antonio. 76 56 20.

Errentan hartzeko

Pisua hartuko nuke alo-
kairuan. 76 47 50 (Jabi).

Pisua hartuko nuke
alokairuan.
76 03 31/79 83 50.

2. GARAJEAK

Saldu

Garajea salgai Bolun.
76 47 99.

Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, eguazten eguerdia baino lehen. Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!

1. ETXEBIZITZAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Etxe konpartituak
Bestelakoak

2. GARAJEAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

3. LOKALAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

4. LANA

Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA

Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

**6. AUTOAK/
MOTOAK**

Saldu
Erosi
Bestelakoak

7. ANIMALIAK

Saldu
Erosi
Bestelakoak

8. DENETARIK

Saldu
Erosi
Eman
Hartu
Trukatu
Galdu
Aurkitu
Bestelakoak

9. HARREMANAK

Agurrak
Kontaktuak
Deiak
Bestelakoak

Garajea salgai
Masterrekan. 78 36 65.

Garajea salgai Arane-
rrekan (2 plaza itxita).
76 06 96.

Garajea salgai
Ibargarain. 76 57 93.

Garajea Torrekuan.
950.000 PTA. 76 19 72.

Zurradero. 76 02 89.

Garajea salgai
Ibargarain. 15 15 81.

Garajea salgai. Deitu
76 40 03 telefonora.

Errentan emateko

Garajea alokairuan
Aranerrekan. 76 28 07.

Garaje bikoitza
Torrekoan. 76 30 32.

Garajea alokairuan
Aranerrekan. 76 46 54.

Garajea alokairuan
Poligonoan. 76 32 58.

Ibargarai. 76 16 38.

Errentan hartzeko

Garajea/ganbara aloka-

tuko genuke. Deitu
76 50 00 telefonora.

Garajea alokatuko
nuke. 76 05 17.

Burdiñate inguruan
garajea errentan
hartuko nuke. Deitu
76 70 63 telefonora.

3. LOKALAK

Saldu

Lokala salgai edo alo-
kairuan Masterrekan.
150m². Deitu

76 11 89 telefonora.

Lokala salgai A. Flemin-
gen. 76 00 84/76 35 83.

Lokal komertziala salgai
Martokon. 76 25 67.

Taberna bat salgai edo
alokairuan Antzuolan.
76 60 16.

Errentan emateko

Lau gelako bulegoa
alokairuan Bolun (osorik
edo gelaka). 76 58 91.

Santa Marinaran 64 m²ko

lokala alokairuan.
76 27 75.

4. LANA

Eskaintzak

Andre batek zaharrak
zaindu edo etxeko
garbiketarak egingo
lituzke. 76 00 90.

Neska batek astebuku-
eretan helduak zaindu
eta etxeko lanak egingo
lituzke. 76 56 66.

Klinika laguntzaileak
gaisoak edo helduak
zaintzen ditu. 76 64 47

Emakume batek astebu-
kaera eta jaiegunetan
zaharrak zaindu eta
etxeko lanak egingo
lituzke. 76 50 46.

Neska batek orduka lan
egingo luke. Deitu
939 47 25 84 telefonora.

Haurrak zainduko
nituzke. 76 04 34.

lanak ordenagailuz
pasatzen ditut. 76 38 71
(Larraitz).

Neska euskaldun batek
haurrak zainduko
lituzke. 76 56 92.

Denda batean, etxeko
lanetan edo zaharrak

AGIRREBEÑA
oinetakoak
arropa denda
lenzeria
Urteaga 5 ☎ 943 76 18 29

YAZKI
UME GAZTE
Neska eta mutil
Irizar 3. 943 76 16 14
Ibargari 8. 943 76 54 73

**KAMIOIEN TXOFERRA KONTRATATU NAHI DA
2 HILABETE ETA ERDIRAKO**
Baldintzak
• Gidatzeko karneta, C-2.
• 16 Tonako kamioiak
gidatzen esperientzia.
Eskaerak aurkezteko epea:
maiatzaren 20ra arte,
eguztarena.
Deba Garaiko
Mankomunitatea:
Arrasate pasealekua 5, behe.
ARRASATE.
Tf. 943 79 33 89 / 99.

Jose M. Martin
pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industrialak
Errekalde auzoa 5, 1.a ANTZUOLA
Tf. 943 76 62 02 / 908 77 64 91

ZUBIAURRE
aroztegia
• Aulki eta mahaien erakusketa eta salmenta.
• Sarrerarako eta barrurako ateak.
• Neurriera egindako horma-armairuak.
• Tarima eta parketak.
• Zurezko leihoak.
• Era guztietako arotz-lanak.
Zubiaurre 2, Bergara.
Tf. 943 76 15 14 / 943 76 35 73

zaintzen lan egingo nuke. 75 17 43.

Arratsaldetan haurrak zainduko nituzke. Esperientzia. 76 03 76 (Maite).

Eskaerak

Neska euskalduna behar da haurrak zaindu eta etxeko lanetarako. 76 04 56.

Emakumea behar da etxeko lanak egiteko eta haurrak zaintzeko. 76 31 11.

Pertsona euskalduna behar dut emate zaindu eta etxeko lanak egiteko. 76 24 33.

Astebukaeratarako esperientziadun taberna behar da. 76 39 53.

Etxe etxe errepartoak egiteko ibilgailua duen pertsona behar da. 76 11 12.

OHO eta ingeles klaseak ematen ditut. 76 17 18 (Jesus).

Mate klaseak ematen ditut. 76 03 72 (Nerea).

Majisteritzako ikasle batek OHOKO klaseak ematen ditu. 76 47 30 (Aitziber).

Fisika, informatika eta mate klaseak. Deitu 76 46 03 telefonora.

OHO eta BBB klaseak ematen dira. Deitu 76 33 26 telefonora.

Eskaerak

Alemaniazko klase partikularrak hartuko nituzke. 76 28 33 (Iker).

2. DBHko mate klaseak hartuko nituzke. 76 13 11 (21:00etatik aurrera).

Ingeles klaseak hartuko genituzke. 76 50 54 (Iker).

Roller jet karabana salgai. 5 plaza. 76 44 05.

T.E.C. King karabana salgai. Lau plaza. 74 31 37.

BMW K75 S motorra salgai (SS-AK). 76 28 88.

Peugeot 309 SR salgai. 100.000 Km. 76 14 64.

Seat Ibiza (BI-BF), diesela, salgai. 76 09 12.

Opel Kadett kotxea (SS-AC) salgai. Deitu 76 16 31 telefonora.

Golf GTI kotxea (SS-AH). 16 balbula. 76 33 26.

Kawasaki GPX 600 R motorra salgai. 76 09 17.

Erosi

Errepideko motorra (49 cc.) erosiko nuke. Deitu 76 39 19 telefonora (Aritz).

7. ANIMALIAK

Saldu

Hispaniel-breton txakurkumeak salgai. 907 93 72 71 (Pablo).

Setter txakurkumeak salgai. Deitu 76 53 92 telefonora (Javi).

Pit-bull txakurkumeak salgai. 79 37 17.

8. DENETARIK

Saldu

Avid bozgoragailuak salgai. 76 76 90.

Super Nintendo kontsola salgai. 76 05 81.

Motorrean ibiltzeko emakumezkoaren goretex BMW traje berria salgai. 76 09 17.

Mendiko bizikletak salgai. 76 49 39.

Idazmakina elektrikoa salgai. 76 10 63.

Kanpin denda familiarra salgai. 76 37 96.


Logela salgai: bi ohe txiki, muelle eta guzti. 76 57 05.

Kitarra elektrikoa eta amplifikadorea salgai. 76 34 31.

Bizikleta estatikoa salgai. 76 07 88.

Erosi

2. eskuko butanozko estufa katalitikoa erosiko nuke. 76 46 90.



Langai

Euskal Lan Zerbitzua

MANDRINADOREA
Ibaizabal. 8325/4

ENKOFRADOREA
Bermeo. 8181/3

FARMAZIA LIZENTZIATUA,
emaKumea
Ibaizabal. 7194/3

BI IGELTZERO
8232/3

KIMIKA-ANALISTA
Gasteiz. 6331/5

INJINERU TEKNIKO INDUSTRIALA,
MEKANIKAKOIA
Bizkaia. 7617/4

LANTEGIKO MONTATZAILEA
Nafarroa. 8252/3

INFORMATIKAKO PROGRAMADOREA
Ezker Ibarra. 7532/5

MEKANIKO AJUSTADOREA
Deba Behea. 8285/3

BI PROGRAMADORE
Eskuin Ibarra. 8661/1

OPERARI:GA
8239/3

AGENTE KOMERTZIALA
Bilbo. 8415/1

MAKINA-ERREMINTAKO MONTATZAILEA
8074/4

ORDEZKARITZAKO GERENTEA
Bilbo. 7724/3

PROGRAMATZAILEA
Madril. 8109/2

Lan eskaintza hauetakoren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.

LANGAI Udaletxean: astelehen, eguazten eta eguakitzetan 9:00etatik 13:00etara.
Telefonoa: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.

5. IRAKASKUNTZA

6. AUTOAK/MOTOAK

Eskaintzak

Saldu

OHO klaseak Antzuolan. 78 71 32.

Golf TDI kotxea salgai. 76 64 70 (Mikel).

Ingeles klaseak ematen ditut. 76 53 88 (Rosa).

Citroen BX kotxea salgai. SS-U. 76 58 00.

Amillaga, gasolindegi ondoan. Tf.: 943 76 57 34

ZABALETA ERROTULOAK

Mota guztietako errotuloak Fatxadak, eskaparateak...

DENA 100etik

ZURE OPARIENTZAKO

Simon Arrieta 3

MARGA jantxidenda

Udaberriko Trajearen

Hamabostaldia

Deskontua:

%30

An de Miguel

GERRY WEBER

San Pedro 20. Bergara. Tf. 943 76 05 37

iRUDI
Erlojudenda Bitxitegia
Ibargarai 2
943 6 51 65

Irizar 2
☎ 943 76 14 95
JAUJA KIROLAK

PANA DEROKUA
TATETXEAI
Kontxi Idigoras
Asteburuetan bertako babak eta sabieskia
SALBADOR 10 ELGETA Tf. 943 76 82 73

Evita musika ikuskizunerako sarrerak salgai

Pazkuetako musikalerako sarrerak 1.000 pezetan jarri dira salgai

Bergarako Orkestra Sinfonikoak Pazkuetako eguakitzean eskainiko duen "Evita" musika ikuskizunerako sarrerak salgai daude. 1.000 pezetan jarriko dira salgai Kultur Etxean, Ariznoa tabernan eta Lazkao oinetako dendan.

Musika ikuskizuna joan zen eguean aurkeztu zuten Jon Sanchez eta Alfredo Gonzalez Chirlaquek, Orkestra presidenteak eta zuzendariak, eta Luis Abajo Kultura zinegotziak. Azken honek aurreratu zuenez, kontzerturako 1.200 sarrera daude eta jaialdi egunean gutxi batzuk salduko dira takilan. Eszenatokia frontisean jarriko da, "Miserableak" ikuskizunean bezala, eta kantxan alkia ipiniko dira.

Kontzertuak bi zati izango ditu: lehenengoan, Orkestra Sinfonikoak hiru obra emango ditu. Bigarrenean, osteran, Andrew Lloyd Webber-en "Evita" musika eskainiko da eta Orkestra Sinfoni-



Jon Sanchez Orkestako presidentea, Luis Abajo eta Alfredo Gonzalez Chirlaquearen ondoan.

koaz gain, 6 lagunez osatutako rock talde bat, 50 laguneko abesbatza eta bi bakarlari izango dira. Musikaren moldaketa Alfredo Gonzalez Chirlaquek egin du, Madonna eta Antonio Banderasek protagonizatutako "Evita" pelikularen soinu bandan oinarituz.

Orkestra Sinfonikoaren 13 urteko ibilbidean, laugarren muntaia da hau. Lehenago "The Mission", "Miserableak" eta "The Lion King" eskaini dituzte. Etorkizunean "Evita" beste herri batzuetan eskaintzeko asmoa dutela adierazi zuten aurkezpenean. B

Itziar Larrañagaren esaldia, jaietan Jardunek aterako duen pegatinan

Jarduneko Gazte taldeak jaietarako antolatutako pegatina lehiaketan 84 lagunek hartu dute parte aurretan. Epai-mahaiak Itziar Larrañagaren esaldia aukeratu du eta Pazkuetan banatuko diren 5.000 pegatinetan ipiniko da. Esaldia, baina, ez da jakitera emango jaietara arte. Irabazleak 10.000 peze-

tako saria jasoko du. Iaz, Iker Egidazuren "Gustoko izan deñ, danekin eñ" aukeratu zuten. Gogoratuko duzuen moduan, tarteka borobiltxo zuriak zituen laranja koloreko fondo baten gainean letra urdinekin inprimatu zen. Pegatinak jaietako lehenengo egunean banatuko dira doan. B

Taun-Taun txotxongilo taldeak bost emanaldi eskainiko ditu Brasilen

Taun-Taun txotxongilo taldeko kideak gaur, eguakitza, joatekoak ziren Brasil aldera, nazioarte mailako lau jaialditan parte hartzerko. Taun-Taunekoak ia hilabete bat, ekainaren 11ra arte hain zuzen ere, izango dira Brasilen eta Alfred Jarryren "Ubu Babel", euren azken muntaia erakutsiko du-

te. Bost emanaldi eskainiko dituzte, Brasilgo lau hiritan: Curitiba, Sao Paulo, Hebraica eta Baruerin, azken honetan bi emanaldi.

Taun-Taunekoak iaz ere Brasilen izan ziren. Orduan "Makinatu" lana eskaini zuten eta izandako erantzuna dela eta, berriz ere gonbidatu dituzte. B

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

ORDUTEGI BERRIA:
8.00-13.00 ETA 15.00-20.00

☎ 943 76 19 54 BERGARA
IRU: ☎ 943 79 11 71 ARRASATE



MUJIKA GOZOTEGIA

BEREZTASUNAK
BIZKORROAK
ERRELENOAK
TOSTIAK

Artakalea 3, BERGARA
☎ 943 76 10 34

Carmen Garate

Plastikoak orokorrean. Oinetakoak.
Opari gaiak. Jostailuak. Zumea...

Bidekurutzeta 6 ☎ 76 13 23

Muniategiandikoetxearen lana

Pintore bergararren koadroak Galeria DVn ikusgai

Manu Muniategiandikoetxea pintore bergararren lanak ikusgai daude ekainaren 7ra arte Donostiako Galeria DVn, San Martin 5ean. Berbetan izenburupean, formato haundiko ateak, hainbat marrazki eta neurri txikiko beste koadro batzuk ikusgai ditu.


Madrileko My Name's Lolita Art erakusketa aretoan otsailean erakutsitako lan guztiak saldu ondoren, ilusio haundiz zabaldu zuen joan zen eguakitzean Galeria DVn. Inaugurazio ekitaldian aurpegi ezagun asko: Odon Elorza Donostiako alkatea, Rosa Diez eta Jose Antonio Maturana sailburuak, Arteleku-ko arduradunak, pintore lagunak...

Muniategiandikoetxeak formato haundiko eta txikiko lanak tartekatuta ditu erakusketa honetan; kolore bakarre-

ko edo biko koadroak eta baita kolore bizi askotakoak; forma geometriko sinpleak (aulkiak eta mahaia) eta marrazkiak (Pajaro Locorena), autoretrato bat...; koadro abstraktoak eta figuratiboak.

Azkenaldian Donostiako *oilotokian* (pintura estudioa) margotutako koadro ugarien artetik aukeratutako lanak dira Donostian ikusi daitezkeenak. Manu, lan egiteko orduan, argazkietan eta katalogoetan oinarritzen da eta Newman, Kiperberger eta konstruktibista errusiarren lanetan erreparatzen du, ondoren koadroa sortzeko.


Galeria DVn martitzenetik eguakitzera, arratsaldeko 5etatik gaueko 9ak arte, eta zapatuetan, goizeko 11etatik ordubata arte eta arratsaldeko 5etatik gaueko 9ak arte, zabalik dago; astelehena eta domeketan itxita. B



Pako Aristi
Oherako hitzak
Poesia

Azken hiru urteetan lantzen ari den eleberria bukatu bitartean, bigarren poema liburua idazteko astia izan du urrestildarrak. Autoreak aitortu duenez, aurreko Castletown-en baino filosofia eta sentimendu gehiago daude bigarren honetan. Olerki luzeagoen artean, beste labur batzuk tartekatzen dira, esaterako Slogana izeneko hau: "Maiteminduta bazau-de, poesia irakurtzea da zorientsu izateko modu bakarra. Eta maiteminduta ez bazau-de, zorientsu izateko modu bakarra maitemintzea da".

- *Erin. 121 orr. 1.500 PTA*



Latzen
Ardi larraz
Trash-metal

Euskadi Gaztearen V. Maketa Lehaketan bigarren saria lortu zuten orain dela bi urte eta, horrek, disko bat grabatzeko aukera eman zien. Estraineko disko hartatik 10.000 kopia saldu dituzte. *Ardi larraz* izeneko bigarren disko honekin erronka zaila dute: lehenengoarekin lortutako arrakasta gainditzea. *Kontzientzia ala infernua* izeneko lehen diskoaren ildo beretik jarraitu dute oraingoan: gizarteko arazoei buruzko hitzak eta soinu metaleroak. Halere, produkzioa landuagoa da eta kitarrak eta ahotsek indar haundiagoa dute. Nabarmentzekoa, Kakik egin duen *Itsutu* kantuen remix-a.

- *Oihuka. 2.300 PTA*



Manu Muniategiandikoetxea, Donostiako Galeria DVn ikusgai duen koadroetako bat atzean duela.



EZOZI
Jatetxea

Astegunetan,
eguneko menua 800/1.200 PTA.
Asteburuetan,
dastaketa menua 2.900 PTA.

Ezozia auzoa 2/b, SORALUZE. Tf.: 943 75 10 01

MUJIKAZ
Jantzidenda

Barrenkalea 1. Tf: 943 76 29 91

ETXAGI
JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK,
EGUNEROKO MENUA,
GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka 8 ☎ 943 76 53 12

denborapasa / LUMA

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

Ezker eskuma

1. Kirol-mota. 2. Orainaldia. Ate, hitz elkarketan. 3. Lerroan jarri. 4. Ez eme. Zabalduek. 5. Ur karbonikoa presioan duen beirazko botila palankaduna. Nitrogenoa. Uranioa. 6. Errepi-katuz, fruitu tropikal bat. Bokala. Litorioa. Kanpo. 7. 1997an. Zahar. 8. Bostehun. Amore eman. Zango-atal. 9. Errukior. Lehenengoa. 10. Aranoarrak.

Goitik behera

1. Hizketakidea. 2. Etsaia. Kontsonante bikoitza. 3. Sartu aditzaren infinitiboa. Kontsonantea. Hitz bat burura ez dator-kigunean erabiltzen dugun ordezkoa. 4. Nerbioa. Atzikia. 5. Norbaiti. Ugari. 6. Lasaialdiak. 7. Bokala. Nor, pluralean. Bi. Hizki grekoa. 8. Erromatarren hizkuntza. Bizkaian, noa. 9. Bururatua. Erne! Potasioa. 10. Kasik. Maitea, laztana.

Soluzioa

10. la kurua.
9. Ota, Adil K.
8. Ak. II. Ro. 8. Latin. Nola.
7. Mont. Asko. 6. Bakealdiak.
6. Sier. F. Zera. 4. Kirioa. Tun.
5. Oskakidea. 2. Aretioa. Hr.
4. Gotik behera
3. Enkanti. A. 10. Aranoakok.
2. Hitz. Adindu. 8. D. Etsi. Oin.
1. Sier. N. U. 6. Ka. A. Li. At.
4. Ar. Irekiak.
3. Sier. N. U. 6. Ka. A. Li. At.
2. Oina. Ata.
1. Ezker eskuma

bonofotoa



Miguel Angel Elkoroberezibar

Granada eta Bilboko entzutebietako lehendakaria izandakoaren izena du pasealeku honek. Nor zen 1860an jaiotako bergarar hori?

Jari Bonofotoko eta Galde Debaldeko erantzunak behean eta asmatzen dituzuenon artean afari ederra zozketatuko du Berrigarak. Aste honetan irabazten duenak eta berak aukeratutako lagunak **Etxiagi** jatetxean izango dute afaria.



Aurreko aleko saria, **Nora Palmitano**rentzat izan da. Leku-Berri merenderoan bi lagunendako afaria. Zorionak Norari! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **Ipintza baserria**. Galde Debalde: **1-B, 2-A, 3-B**.

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1: _____ 2: _____ 3: _____

Izena-deitura: _____ Telefonoa: _____

Ekarri edo bidali txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! **AFARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!**

ETXAGI
JATETXEA

Masterreka 8
☎ 943 76 53 12

Azkoitiarra jaiotzez, 14 urtez ehungintzan lan egin ondoren, duela 6 urte Marga jantxidenda zabaldu zuen Bergaran. Ezkondua, alaba bat dauka eta Zumarragan bizi da. Umore onez erantzun die galdera hauei.

Marga Zulaika

Pinpirina zara?

Bai, emakume denak gara pinpirinak.

Ispiluak zer esaten dizu?

Oso ondo nagoela.

Zelako jantziak atsegin?

Sport baino, dotore joatea gustatzen zait.

Gustoko jantzi bat?

Traje beltza.

Zer ez zenuke sekula jantziko?

Buzo bat, adibidez.

Gustoko marka bat?

Toytes.

Diseinatzaile bat?

Mercedes De Miguel.

Top-model bat?

Claudia Schiffer.

Zapata takoidunak ala gabeak?

Takoidunak.

Gonak edo prakak?

Biak.

Makilatuta ala makilatu gabe?

Makilatuta.

Bitxirik jantzen duzu?

Bai, asko gustatzen zaizkit.

Sonbrerorik bai?

Bai, ezkontzetan eta horrelakoetan...

Gizonezkoengan zertan fijatzen zara lehenbizi?

Konjuntoan eta estiloan.

Ilepaindegira zenbatero joaten zara?

Hilean behin edo...

Dietarik egiten duzu?

Bai, baina alperrik. Segituan lagatzen dut.

Janari bat?

Rapea amerikar erara.

Udan, bainujantzia ala bikini?

Bikinia nahiago.

Pizina ala hondartza?

Hondartza.

Gustoko bat?

Frantziara joaten naiz sarri.

Solariumera joatera zara?

Bai, neguan batez ere.

Hobby bat?

Dantzan egitea.

Bakarrik ala lagunduta?

Bikotea ona bada, lagunduta hobe.

Zelako dantzak atsegin?

Denetik; suelta, trikitia, saltsa...

Egunkarian irakurtzen duzun lehen gauza?

Horoskopoa. Astrologia atsegin dut.

Zodiakoko zein zeinutakoa zara?

Tauroa.

Zelakoak zarete Tauroak?

Bihotz haundikoak eta oso sentiberak.

Loteria tokatuz gero, zer egingo zenuke?

Kruzero bat.

Desio bat?

Nire alaba, eduki zuen istripitik, guztiz errekuperatzea. B



**TABERNA
ZAHARRA**

Jatetxea

bazkari eta
afariak

Telefona: 943 76 21 21
ANGIOZAR

**LONBIDE
ONETAKOAK**

Bidekurutzeta 5

BERGARA

☎ 943 76 10 57



**EDEL
TAPIZDENDA**

*Etixerako artikuluetan
aukerarik haundiena
eskaintzen dizugu*

IBARGUREN PENTSUAK

BIONA pentsuen biltegia,

BIOTER produktuak,

haziak eta bestelako nekazal produktuak



San Pedro 3 Tf. 943 76 23 79

**Alfonbrak, kordinak,
kortinoiak, koltzak,
edredoak, etab.**

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14 BERGARA



Bergarako benjaminak, 1983

Hona hemen 1983-84ko BKEko benjaminak; elkarteak atera zuen lehen talde benjamina. Inguruan maila honetako txapelketarik antolatzen ez zenez, Zarautzera joan behar izaten ziren hondartzan jolastera. Gainera, goizeko 7etan irtetzen ziren Bergaratik Zarautzera garaiz heltzeko. Agustin Aranzabalen lehen talde federatua izan zen hau. Ondoren, Bergarako alebin eta infantil mailetan jokatu ostean, Realerako fitxatu zuten jubentzetan..., eta gaur arte.

Hona hemen argazkian agertzen direnen izenak, ezkerretik hasita:

Atzean: Julian Arriaran (lehendakaria), Enrique Zelaia (delegatua) eta Manu Diaz (entrenatzailea).

Zutik: Migel Orrantia, Iban Arietaleaniz, Igor Azkarate, Igor Legazpia, Jabi Sanchez, Ion Alberdi, Iñaki Arrieta, Agustin Aranzabal, Gaiñka Gallastegi, Zigor Otero, Andoitz Garitano, Oskar Vicente, Lauri Askargorta, Mikel Etxeberria, Unai Altuna eta Edu Iñarra.

Makurtuta: Pablo, Xabi Aramendi, Mikel Arregi, Mikel Lijo, Unai Salaberria, Asier Elortza, Mikel Unamuno, Asier Agirrebeña, Andoni Arroio, Iban Etxeberria, Mikel Etxabe, Patxi Osa, Mikeldi Garmendia eta Jose Luis Lopez Morais.

Argazkia: Manu Diaz

OHARRA

Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero, BERRIGARARA bertara ekar dezakezu. Errotalde jauregian gaituzo, zatoz!

Gaskide, S.L.

ITURGINTZA OROKORRA
GASA ETA KALEFAKZIOA

☎ 943 76 49 00

HELBIDE BERRIA:
Aritzetako San Migel 8-10
BERGARA



zumelaga

JATETXEA

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA
PREZIOAN PAREKORIK EZ!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21



MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25

Musika denontzat!

Eskaintza zabala:

- ✓ Hizkuntza musikala
- ✓ Instrumentu guztiak
- ✓ Kantua
- ✓ Abesbatza
- ✓ Talde instrumentalak
- ✓ **ETA HELDUENTZAKO IKASTAROAK ERE BAI!!**



Matrikula zaitzez!

1998-99 IKASTURTERAKO
MARIKULA EPEA
MAIATZAREN 1etik EKAINAREN 19ra



INFORMAZIOA ETA IZEN EMATEA:
Musika Eskola
Espoloia z/g. Tf. 76 57 80.
Ordutegia, astelehenetik eguakitzera:
17:00-21:00.

98^{ko} OPORRALDIA

Lizarrara, Nafarroa.
Uztailaren 13tik 19ra

EKINTZAK

Piragua	Puenting
Zaldiak	Bizikleta
Golf txikia	Eskalada
Piztina	Diskoteka

MARIKULA: 22.500 PTA

IZEN-EMATEA: Maiatzaren 20ra arte,
Kartzela Zaharrear. Tf. 76 36 61.

A! PLAZAK MUGATUAK DIRA. AZKAR IBILI!

12-16 urte baldin badauzkozu...
Uztailian aste ahaztezin bat pasau
nahibozu...

Zatoz gurekin

Antolatzailea:



a, eme...
interiores



Garibai, 9
20.500 ARRASATE
(GIPUZKOA)
Tel.: 79 15 03
Telefax: 79 14 8

a, eme... interiores



DESKONTUAK

%20

%30

%50

**Altzari
erakusketak
aldatzen ari gara**



grupo



**Amuebladora
Mondragonesa**

etxeko ekipamendu osoa